




# ttipi-ttapa

TOPIKOM



Luziano MITXELENA

Master 60 mailan  
EHko txapeldun  
→ 36

2014ko otsailaren 20a | XXXIV. urtea | 608. zenbakia

www.ttipi.net

**Landareak** → 4-5  
**Inauteriak** → 23-32

**ESKUALDEA** → 20  
Merkatarien kotxea  
Aurtitzera joan da

**GOIZUETA** → 36  
Aimar Olaizola Nafarroako  
kirolari onena izendatua

**BAZTAN** → 38  
Gogoz kontra Espainiako  
bandera udaletxean

**ZUGARRAMURDI** → 40  
Goya sarietan 'Las brujas  
de Zugarramurdi' sarituena

**Martxel RODRIGUEZ** | Dantzaz Konpainiako dantzari lesakarra



ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

## Dantza bizimodu eta lanbide

Ikasketaz fisikaria da Martxel baina lanbidez dantzaria, zenbaitentzat harrigarri bada ere. Dantzaz Konpainiarekin ari da orain, gustura. Aktuazio ugari ditu agendan: Euskal Herrian, Katalunian, Espainian, Italian...

ELKARRIZKETA → 3

**ASIAKO LIZTORRA** → 10  
Tranpak jartzeko sasoia

Bortzirietako Udalekanpaina prestatu dute liztor beltzaren kontraritzeko. Aldizkari honen barnean hartuko duzue informazio orria Bortzirietako harpidedunek.

**Hazien Eguna Beran, otsailaren 22an**

Aitzineko urtetan Zubietan eta Elizondon egin zen. Aurten bi saio prestatu dituzte: lehena Elizondon egin zutena eta bigarrena Beran, larunbat honetan. → 11



**Erreka Kirol Elkarteak triatloi sekzio jendetsua aurkeztu berri du**

→ 37

**ZOZKETAK** → 2



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu  
948 635 458 telefonora

**ttipi txartela**

ttipi txartela

**PILI IRIARTEA IGARTZA**  
72675333-0  
042014  
123456

**ttipi txartelarekin  
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58

informazio gehiago: telefonoan  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA  
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457  
info@ttipi.net | www.ttipi.net

**deSKONTUAK**



**GILTXAURDI**  
UDAL KIROL INSTALAZIOA  
ELIZONDO

%50eko deskontua martirulari,  
guztietan eta onartu behar duen talde bakoitzeko

**IPINGI**

ELIZONDO  
%10, 30€tik gorako gastuan

**IPARLA**  
kirolak

ELIZONDO  
%8, 30€tik gorako gastuan

**CASA OSTIZ**

DONEZTEBE  
%10eko deskontua oinetakoetan



**XRRATE ESTETIKA ZENTROX**  
DONEZTEBE | %10 "Skeyndor  
Eternal" krema guztietan

**Kimetz**  
Belardenda

DONEZTEBE | %5 kosmetikan

**zozKetak**


**607. ALEKO IRABAZLEAK**

- 1- KAMISETA BAT | Onddo ta punto  
Susana Saldias | **ELIZONDO**
- 2- AUPA KINTXO DVDa | Katxiporreta  
Gerna Sein | **LESAKA**
- 3- PUNPALAPLAN DVDa | Urtxintxa Eskola  
Carmen Errecart | **SUNBILLA**
- 4- 4 LIBURU | Erein argitaletxea  
Teletxista ez dabil | M<sup>a</sup> Sol Jaurena | **ERRATZU**  
Emanaldia | Edurne Agirre | **LESAKA**  
Geldokian Gelduki | Ane Elozegi | **LESAKA**  
Zulo Mestenotsua | M<sup>a</sup> Pilar Urrutia | **ELIZONDO**
- 5- ZEA MAYS CDa  
Amala Abuin | **BERA**
- 6- 2 SARRERA | Donostiako Aquarium-a  
Rafa Barragan | **ELIZONDO**

**KAMISETA BAT**  
Oninart denda  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)



**ENEKORA CDa**  
Txalapart  
[www.txalapart.com](http://www.txalapart.com)



**3 SARRERA**  
JABIER MUGURUZA

Berako kultur etxea  
[www.berakoudala.net](http://www.berakoudala.net)



**2 LIBURU**  
Ibaizabal argitaletxea  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)



**3 LIBURU**  
Txalaparta argitaletxea  
[www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com)



**2 SARRERA**  
Donostiako Aquarium-a  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Ikasketaz fisikaria eta lanbidez dantzaria da Martxel Rodriguez. 2013ko udan bukatu zituen unibertsitateko ikasketak eta gerotzik, Donostiako Dantzas konpainiako kidea da,

hau da, Europako dantzari gazteak lan merkatura bultzatzeko helburua duen plataformako partaidea. Nabarmenezkoa da orain arte talde honetatik pasatu diren dantzari

gehienek profesioletarako saltoa egin dutela. 23 urteko lesakarraren ustez, posible da dantzatik bizitzea eta bere kasuan, dantza *hobby* bat izatetik lanbide izatera pasatu da.

Martxel RODRIGUEZ | Lesakako dantzaria

# «Nire ogibidea dantza da eta epe labur eta ertainean hala izatea espero dut»

G. PIKABEA | LESAKA

## Zein ibilbide egin duzu dantza munduan?

Sei urterekin Lesakako Tantarumairu Dantza Taldean hasi nintzen, baina gazteagoa nintzenean ere etxean ez nintzen geldirik egoten. Gero, jazz eta ballet klasikoa ikasten hasi nintzen Hondarribian eta Donostian, eta azken honetan hamazazpi urte bete arte segitu nuen. Azkenik, Bilbon dantza garaikidea ezagutu nuen eta hiru urte eman nituen estilo hau ikasten.

## Nola ailegatu zinen Dantzas konpainiara?

Bilboko lagun batek Donostian gazteentzako dantza konpainia bat bazegoela aipatu zidan eta sartzea animatu. 2012ko Eguberrietako oporretan audizioa egin eta baiezkoa eman zidaten. Hala ere, konpainian eguneroko lanean 2013ko uztaile-ra arte ez nintzen hasi, ikasketak bukatu arte, hain zuzen. Hagitz esperientzia positiboa izaten ari da, batez ere dantza *hobby* edo eskolaz kanpoko ekintza izatetik lan bat izatera pasatu delako. Konpainia honen gauzarik onenetakoa bertan lantzen den errepertorioa da. Izan ere mundu guztiko koreografoekin lan egiten dugu eta hagitz maila altua dute. Dantza garaikidea eta neoklasikoa lantzen ditugu, koreografoaren arabera estilo bat edo berte. Beti ere be-



ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

Martxel Rodriguez lesakarra Dantzas konpainiako dantzaria da joan den urteko uztailetik.

harrezkoa dugu dantza klasikoko oinarri sendo bat edukitzea.

## Nolako konpainia da Dantzas?

Dantza munduan lehen enplegua lortzeko plataforma da. Bi urte egon gaitzke gehienez eta denbora horretan, etengabeko lana eta aktuzioak egiteaz gain, Europan barna konpainietan lana bilatzen saiatu behar dugu. Horretarako, gure curriculuma hobetzen laguntzen digute eta audizio desberdinei buruzko informazioa ematen digute.

**Nola lan egiten duzue?** Gure ordutegia 09:30etik 18:00etara bitartekoa da.

## URTEKO AGENDA

Agenda bete du Martxel Rodriguezek Dantzas konpainiarekin: otsailean Donostian hainbat saio eskaini dituzte. Martxoan, berri, Murtzian eta Xixonen izanen dira, apirilean Turinen, Reusen eta Basaurin eta maiatzean Donostian ikusizunak egingen dituzte.

## DANTZA LANBIDE

«Gure inguruan oraindik bada jendea erra-ten didana 'horrelako karrera egin duzu dantzan bukatzeko?'»

Goizero konpainiako zuzendari artistikoak ballet klase bat ematen digu beroketa modura. Etasegidan aitzinean ditugun aktuzioen arabera, errepertorioko piezak entsaiatzen ditugu. Bazkaltzeko ordu bateko atsendena hartzen dugu. Oraingoz hagitz lanpetuak gabiltza eta hortaz kontent. Hala ere, bizi dugun krisi egoeran kultura da azkenerako uzten dena eta honen barrenean normalean dantza da guttien jasotzen duena eta hori nabaritzen da. **Zer da dantza zuretzat?** Dantza bertze edozein arte bezala espresio modu bat da, kasu honetan,

gorputzarekin eta honen mugimendu edo mugimendu ezen bidez erai-  
kia.

## Lesakako Ezpatadantzarien taldeko kapitaina ere bazara...

Hagitz berezia da Ezpatadantzaria izatea, sanferminak bertze modu batera bizitzen dira. Aitzineskua izanen naiz sanfermin hauetan eta horrek urduritasuna handitzen du, baina espero dut dena ongi joanen dela.

## Dantzaria ala fisikaria zaitugu?

Biak. Gustuko nuelako fisika ikasi nuen eta horri esker hagitz jende interesgarria ezagutu ahal izan dut, baita bertirako lagunak egin ere. Orain bertze etapa batean nago, bertzerik ez. Gaur egun, nire ogibidea dantza da eta espero dut epe labur eta ertain batean hala izatea. Zoritxarrez, gure inguruan oraindik badago jendea erra-ten didana «eta horrelako karrera bat egin duzu dantzan bukatzeko?».

## Zein da dantzari on bat izateko sekretua?

Diziplina, gogoia, erotasun puntu bat eta berezko sentsibiltate edo talentu pixka bat behar dira.

## Zein da zure ametsa?

Amets aunitz ditut, bartzuk dantzarekin lotuak eta bertzeak ez. Nahia-  
go dut balizko egoerak imajinatzen egon beharrean, egunean egune-koaz gozatu.

**Landiflor**  
Loredenda



# Udaberria dator, Presta zaitez!

Aukera paregabea Landiflor loradendan



Dipladeniak



Geranioak

Eskaintza zabala  
denboraldiko loreetan,  
landareetan...

Baita fruta  
arboletan ere.  
Lore ontzi, lur ongarri  
eta lorategi osagarriak  
zuen esku.



Sagarrondoak



Muxikondoak



Gereziondoak



Udareondoak



Aranondoak



Venta Peio fideltasun txartelak Landiflorren ere ballo du.

Landiflor zure loredenda egunero irekia: 9.30 - 12.30 / 13.30 - 19.00  
Barrio Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

Dantxarinea Ibarñe Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es) (ext: 612)

## LORATEGIEN DISEINUA

Etxe inguruak kolorez  
apaintzeko gomendioak

Etxe bazterrak, balkoiak eta terrazak eder ikustea denontzat da atsegina, eta landareak eta loreak dira inguruak kolorez apaintzeko lagungarri zaizkigunak. Edertasun horrek, ordea, lan batzuk ere baditu, eta hala, lorategiak diseinatzen aholku eske jo dugu Landiflor lora-dendako Tomas Arribillaga eta Telletxea lorazaintzako John Telletxearengana.

Biek erran digute orientazioa dela lorategi bat diseinatzerakoan kontuan hartu beharreko lehendabiziko gauza. «Normalean, goizeko eguzkia dutenak dira orientaziorik egokienak», dio Arribillagak. Telletxeak «toki eguzkitsua baldin bada eguzkitako landareak» aholkatzen ditu: «arrosak, hiperikoak edo tagetesak, margaritak eta txinatar krabelinak bezalako eguzkitako loreak». Aldiz, itzal tokia bada, «hortentsiak, azaleak, kameliak edo itzal garaiko loreak egokiak dira, begoniak eta alegriak bezala». Lur klasea ere kontuan hartu behar dela argitu digu Arribillagak: «lorategia lurlean, ez ontzian, egin behar bada, lantzen ahal den lurra izan dadila, drainatzen ahal dena». Telletxeak, gainera, lorategia zaintzen zenbat denbora pasa nahi dugun aintzat hartzeko adierazi du: «hasieran gogotsu hasten gara, baina denborarekin aspertu egiten gara, eta lehen dibertigarria zena, lan aspergarria eta monotonoa bihurtzen da».

Klimari ere erreparatu behar zaio. Telletxeak azaldu digunez, «gure klima epela da, ozeanikoa, hau da, itsasoaren eragina duena. Orokorrean, tenperaturak atseginak dira, neguan ez sobera baxuak eta udan ez sobera altuak, eta horrek landareetan aukera handia ematen digu». Halere, toki euritsuia izanda «gaixotasun aunitz» sortzen direla jakinarazi du. «Beraz, gaixotasun horiei aurre egiteko gai diren landareak bilatu behar dira». Landiflorrekoak «gure kliman landare gehienek balio dutela» erran digu, «baina lorategi bat landare mota aunitzekin egin behar da, zuhaixkak eta garaian garaiko landareak konbinatuz. Loreak eta zuhaixkak konbinatuz gauza politak egin daitezke».

Azken aldian, laranjondoak eta limoiendoak modan daudela kontatu digu Telletxeak: «ez dira gure klimakoak baina toki babestueta eta eguzkitsuetan paratuta, emaitza ona eman dezakete, baita bugainbileak ere paretan aunitz loratzen baita». Baina ohartarazi du «izotz beltzak hondatzeko arriskua badagoela». Arribillagak landaririk estimatuenak zein diren aipatu dizkigu: «negu aldean pentsamenduak, sanjose loreak, añarrak... Eta uda aldera, betikoak, geranioak eta hiedrak dira gehien paratzen direnak, eta azken urteotan toki eguzkitsuetan dipladeniak ere aunitz paratzen dira».

## Ohiko hanka-sartzeak

Landiflorrekoarentzat «akats haundiena lorategi ttiketian sobera landare paratzea izaten da. Lorategia egiterakoan hutsik gelditu dela iruditzen zaigu, eta ez gara konturatzen bi urteren buruan landare horiek bikoiztu eta lau aldiz egiten direla. Bertze hanka-sartzea norberari gustatzen zaizkion baina dugun tokirako egokiak ez diren landareak eramatea izaten da». Iritzi berekoa da Telletxea: «eguzkitako landareak itzalean eta alderantziz paratzea izaten da hutsegite haundiena, edo landare gehiegi eta hurbilegi paratzea». Beraz, badakigu. Gomendio hauekin lorategi ederra lortzeko aukera izanen dugu. Baina azken emaitza desberdina izanen da denetan. Arribillagak dioen gisa, «pertsonetan bezala, ez dagoelako lorategi berdin bakar bat ere ez».



«Hanka-sartze haundienak landare sobera eta toki bakoitzerako egokiak ez direnak paratzea dira»

Tomas ARRIBILLAGA | Landiflor



«Gure klima epela da, baina toki euritsuia izanda gaixotasun aunitz sortzen dira landareetan»

John TELLETXEA | Telletxea lorazaintza

Carlos Txoperena

mendi garbiketak eta landaketak  
ITXITURAK



Tel: 948 637 477  
637 466 124  
LESAKA



MENDI LANAK

Landatzeak • Birlandatzeak • Garbiketak  
Egur ateratzeak • Garraioak  
Zerrakurak...

Leku-Eder, Busitz - 31791 SUNBILLA - altzurisi@yahoo.es  
Tel./Fax: 948 450 504 - 659 867 287 - 699 461 394

SU EGURRA SALGAI; xehelua eta lotelan



ttipi.net

Qr bidez zure  
mugikorreen



ttipi-ttapa  
ALDEKARIA  
ZURE  
MUGIKORREAN  
INUSTEKO  
AUKERA



www.ttipi.net



«TELLETXEA»  
Lorazaintza

Paisajismoa  
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea  
Ureztatze Sistema Automatikoak

Kimaketak  
Mantentzea lanak



John Telletxea

Nekazar Ingeniari Teknikoa  
Otxangoko Industrialdea, 18, industria-nabea  
31770 LESAKA (Nafarroa)  
T. 619 418 683 - F. 948 637 049  
john.telletxea@hotmail.com

www.telletxealorazaintza.com



**Nire txanda**  
Joseba URROTZ

## Hiketan

**B**ai, hika solasteko moduari buruz ari nauk. Zuei, hala ere, ez natzaizue hiketan ariko, ez zekiat ba zergatik, beharbada ez diat ongi-asmatuko.

Izan ere, uste dut galtzeko zorian dagoela solaske-ra modu maite hau, gero eta guttiago entzuten baitut batez ere gazteen artean.

Eta hara, aferu honi buruz bila nabilela non konturatu naizen hiketan aritzen ez garenean, normalean, ez garelara "zuka" aritzen, "eztabadaka" baizik. Ez zait erraxa egin ulertzea aldea: "Aita juan da", eztabadaka; "Aita juana duzu" zuka, ongi entelegatu badut.

Hara ba, hiketan aritzeko ohituraren galerari buruz aritu asmo nuela, nola konturatu naizen "zuka" ere ia galdua dugula.

Eskolan euskaraz ikasten dute ikasle gehienek gure inguruan, baina han batua ikasten ari dira, irakasle guttiak solasten dute toka eta noka. Eta eskolaz kanpo, zuketara eta beroriketa galdua dugu.

Behin baino gehigotan erran izan didate euskaltegetako irakasleek, "dakizuenek erakutsi hiketan euskaldun berriei, guk eztabadaka eginen diegu".

Zenbat gauza ari den galtzen gure euskara...

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Mestizajeaz edo globalizazioaz

**P**erun egindako Lodosako pikillo piperrak edo etxeko barazkiekin egindako pizza *italiarra*.

Esne Beltzak Jamaikako reggae eta Ingalaterrako ska nahasiz jotako trikitixa doinua edo Joxeina Hemendik At talde euskaldunaren teknoa pintxatzen. Basakarak ez duen patxaran nafarra edo herriko bestetako txoznan edandako Coca-Cola amerikarra. Zer da mestizajea? Zer globalizazioa?

## Nabarmentzekoak



Xabier IBARGARAI  
Munduko azpitzapeladun

Profesionaletan sei urte eman ondotik, Munduko buruz buruko pala txapelketaren finalera ailegatu da Erratzuko palista. Galdu egin zuen Pablo Fusto argentinararen kontra.



Luziano MITXELENA  
Euskadiko txapeladun

Master60 kategorian Euskadiko txapelketa irabazi zuen Transbidasoa-Euromaster taldeko txirrindulari lesakarrak otsailaren 8an Artziniega (Araba). Iaz ez zuen parte hartzerik izan.



Juanito ZELAIETA  
Berako erlezaina

Liztor beltzaren kontrako kanpainari ekin diote Bortzirietan. Udazkenean, Berako erlezainak prestatutako pertika sistema erabiliko dute habiak suntsitzeko. 15 metroa ailegaten da.

**Azterera begira** → 2004.02.19 / TTIPI-TTAPA 368 zk.



### Dizdira elkarteak ezagutzen Ainhoa Arburua psikologoarekin

Buruko erie eta senideei laguntza eman asmoz sortutako Dizdira elkartearen berri eman zigun orain hamar urte Ainhoa Arburua etxalartarrak. «Zuzeneko arreta eskainiko diegu buruko eritasuna dutenei eta bere senideei. Bertzetik, aisialdiko ekintzak antolatuko ditugu eriek margotzeko, marrazteko...». Urte hartako apirillean bulegoa irekitzekotan ziren Donezteben. Arburuak aipatu zingunez, «jendeak uste baino depresio eta eskizofrenia kasu gehiago daude». Lesakako eta Elizondoko Osasun Zentroek egindako txostenaren arabera 5.847 kontsulta eginak ziren azken hiru urteetan.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2013ko harpidetza sariak**

Hego Euskal Herria	.....40€	Europa	.....59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....34€
Ipar Euskal Herria	.....59,50€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

### Ezin denentzat dastagarri izan

Joseba URKIOLA (Leitza)

**B**ost hilabete inguru geratzen dira urteko gertakaririk garrantzitsuenerako. Brasilgo Mundu Kopa ate joka da. Ahaztutaren uhartean denbora askoan egon ondotik, azken bizpahiru urtean arrazoi desberdinak tarteko, Hego Ameriketako herrialde erraldoi hau notizia iturri da. Kirolak, gizartearen opio eta poz iturri nagusienetakoak, interesaren epizentro bihurtu du. Etxeko txikiak hasi dira Brazuca baloi ofizialari ostikoak ematen. Jende ugari urteetako aurrezkien lurrezko txerriak apurtu eta eskaintzarik onena aurkitzeari ekin dio Mundu Koparen trago gozoa zuzenean dastatzeko.

Hegoafrikan gertatu bezala baina, alfonbra antzeko berdegune zoragarri eta luxuzko estadioetatik kanpo errealitatea bestelakoa da. Oso desberdina. Dilma Rousseffek burukomin dexente izan zituen iragan ekainean, brasildarrek aski esan zuten. Transporte publikoa egun batetik bestera garestitu egin zen, luxua normaltasunari gain hartzen joan zitzaion eta hilabete batzuk lehenago gobernuak eginiko promesak erabat antzutzen. Telebistan ustez guztia eder, zoragarri eta gozagarri arren; herritar gehiengoari baloiak ostiko mingarriak eman dizkie.

Rio de Janeiroko egoera da azpimarragarrienetako bat. Errealitate krudelaren itxura desosoro eta mingarria goxatzeko, etxe asko suntsituak izan dira. Kaltetutakoei estalpe moderno eta eder-rago bat emango zietela agindu zieten, denborak baina erabat pozoitu ditu promesak. Lehen txiroa eta xumea zena, orain eskasagoa da. Egunerokorako funtzionaltasunetik gutxi daukaten etxola txiki, zahar eta tristeetan egokitu dituzte. Kexak eta protestak alperrik dira. Doluzko hitzak haizeak eramaten ditu. Horri eguneroko biziaren garestitzea eta lan baldintzen egoera txartzea gehitzen badiogu, emaitza panorama triste baten presentzia da. Brasilgo agintariak gauzak gaizki egin dituzte munduaren arreta eurenganatzeko eta orain akatsak konpontzeko borondatea izan arren, sortu duten muntroa baretzea majo kostako zaie. Europan eta Amerikako Estatu Batuetan krisia 2008an indarra hartzen hasi zenean. Brasil hobera zioan ekonomia bakarrenetakoa zen. Barne produktuaren sendotzea eta euren baliabide naturalen kudeaketak oxigeno berezi bat eman zien. Azkar bihurtu zen herrialdea, munduko aberats eta inbertsore nagusien interesgune. Eta dolarren iturria nabarmen handitu zen.

Horrek baina egoera hobetu beharrean, kaltetu egin du. Ongizate gizartea beti "bihar" landu beharreko gaitzat eduki dute. Osasuna, hezkuntza eta langabeziari garrantzia kendu eta askoren artean futbol zelaiak berri eta eraikitzen gastatu dute dirua. 5 hilabeteren faltan estadio gehienak bukatzeko daude eta aurrekontua hasieran uste zenetik, askoz ere handiagoa da. 2006an Alemanian eta 2010ean Hegoafrikan gastaturikoa, gustoz gainditu du. Ez dago jakiterik zer gastatzera irits daitezkeen.

Argi dago Messi, Cristiano Ronaldo eta Neymar bezalako ustezko izarrek distira egin dezaten askok iluntasun sakonean egon beharko dutela barneratuta. Uztailaren 13an bukatuko da Mundiala eta 14an ere ziur egunak Brasilen argituko duela. Herritarrak hasiak dira munduari begiak irekiko dizkieten protestak prestatzen. Herri mugimendua indarra hartzen ari da eta milaka prest daude. Baina ez ote itsu handiena ikusi nahi ez duena? Koparen tragoa ez da gozoa izango denentzat eta hala badirudi ere ez. Promesa antzuak eta protagonismo nahia, koktel gogor eta lehergarria.

### Bata bestearen atzetik

Tere SAEZ

**A**lcálako gotzainak, Reig Plák, feminismoaren aurka hitz egin du berriki, "pertsonek eraikitzen aurrakako urratsa" dela esanaz. Emakumeen botu eskubidea eskatzen hasi ziren edo eskubideen berdintasuna eta...» hasi du bere hitzaldia. Ziurrenik ez du ongi interpretatu genero analisiak diona. Emakume eta gizonezkoak nolakoak izan beharko genukeen zehazten duten estereotipoak berreraikitze beharra azpimarratzen du genero analisiak. Guztiok erabakiak hartu eta aukeratzeko dugun eskubideaz hitz egiten du, sexuak inongo baldintzarik ezarri gabe. Esanahiak nahasi dituelakoan nago. Granadako gotzainak, "Casate y se sumisa" eta "Casate y da la vida por ella. Hombres de verdad para mujeres sin miedo" liburuak irakurtzera animatu du gizartea. Nahiz eta bi liburuetan emakumeak esanekoa izan behar duela eta gizonezkoen zeregina emakumea babestea dela errepikatzen duten muturreko estereotipoak agertu.

Aita santuak, emakumeak elizetan duen papera garrantzitsua dela onartzen duen arren, (ez da gutxi, gure zeregina behartsuenei laguntzera mugatzen badu ere) etxean gertatzen denaren erantzule bakar bihurtzen ditu, horixe da bere ustez gizartean eta familian dugun benetako zeregina. "Emakumeen presentzia etxeetan inoiz baino beharrezkoagoa da, ondorengoei oinarri moral sendoak eta fedea transmititzeko". Pentsaera hau bateragarria al da ardua banaketa eta parekidetasunarekin? Beste behin ere gizonezkoak kanpora lanera bidaltzen ditu eta emakumearen gain gelditzen da haurrak zaintzeko ardua. Askok jota, lanera joan gaitzake baina Toni Leblanc-en gisara "Etxetik lanera eta lanetik etxera korrika ttikian", bidean feminis- tekin topo egin eta gure bidetik atera ez gaitzaten.

Sebastian artzapezpikuak, berriki homosexualitatearen gainean egin dituen adiezenak ere ezin aipatu gabe utzi. Gogorarazi nahiko nioke 1900 urtean, Munduko Osasunaren Elkarteak, homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik ezabatu zuela.

Eta Gallardon Ministroa, emakumeek beren bizitzaren inguruan erabakitze duten eskubidearen aurka eginez... Zentzuduna den edonorentzat ulertezina den abortuaren legea aurkeztuz. 30 urtez gibelera egiten duen lege bat inposatuz, abortua aukera ezkutuko eta klasista bilakatu, lege berriarekin dirua daukatenek bakarrik izango baitute abortatzeko aukera. Hori bai, bidai agentziak gus- tura egonen dira Portugal, Frantzia, Londres... aldera bidaiak ugaritu egingen direlako.

Egoera hau izanda, nor harritzen da behin eta berriz emakumeoi tuntunen pare tratatzen bagaituzte edo gure gorputza erosketarako erreklamu bihurtzen bada Fiturren, ge- hienbat Estatu Espainarreko standetan. Lagundu...hau aspermena!

«1900 urtean, Munduko Osasunaren Elkarteak, homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik ezabatu zuen»

## Irakurleak mintzo

Herritarron lanari  
esker Igantzi  
ederragoa duguLurdes IBARLUZEA (Igantziko  
Udalaren izenean)

Urte berria hasi da, egunak luzatzen ari dira. Udazken ederrak negu bakartiari paso eman dio, eta gure herri maitetan betiko martxan jarraitzen dugu...

Betiko martxan? EZ!!!!!!: herria zainduagoa ikusten dut, txukunagoa, maitatuagoa, ... ez dakit, GUREAGOA EDO...

Ea hobea adierazteko gai naizen: aurtengo udan gure Trenbidetik ibili edo txirindan aritu direnek bazterrak inoiz baino garbiagoak ikusi dituzte, bidea inoiz baino zabalagoan gozatu dute. Gure mendietako bidaxkak eta bideak sasi eta otez libre dira. Gure aitzinekoek beraien izerdiz eraikitako labadero, zubi eta askaren batek lehen garai hailetako itxura sendoa eta garbia erakusten dute. Herriko paretak goroldio eta landarerik gabe dira, bankuak margotu berriak dira. Amets eta istorio liluragarriak betetako liburutegia poliki-poliki osatzen ari da. Eskolako jolastokiko futbol eta saskibaloiko zelaien marrak margotuta daude, etorkizuneko kirol izarrek bertan entrenatu ahal izateko. Ora in dela 2.000 urte inguru erromatarrek eraikitako galtzadak aspaldiko dotorezia berreskuratu du. Lesakako bi-

dean haizeak eta udazkenak utzitako hostoak errepidetik desagertu dira, gure betiko "autopistaren" zabalera osoa agerian utziz...

Bai, hau dena eta gehiago Igantzin ikusi dut, eta pentsatu dut "bene-tan hau da munduan dugun gure txoko xumea, eta gure etxea balitz bezala zaintzen badugu, herriko edozein lekutan egonda ere, gure etxean gaudela sentituko dugu, babestuta, lasaitasunean, konfidantzaz beteta. Herritik kanpo bizi direnak bueltatzen direnean horrela sentituko dira Berrizaunen sartu eta segituan, bihotzean berotasun zahar bat berriro sumatzean, arnasa sakon bat hartuz...". Eta hau dena guztion laguntzaz lortu dugu, gure herria maitatzen dugula erakutsiz, guztion etxea dela ulertuz eta denon artean zainduz, auzolanean.

Udaletxetik herritar guztiei eskerrik beroenak ematen dizkie, zuek gabe hau dena lortzea ezinezkoa litzatekelako: Mila esker denoi!

Biomasa: kezka  
batzuk eta  
proposamen batJon ELIZETXE BIDEGARAI  
(Baztango Udaleko Inguru-  
giro, Mendi eta Nekazaritza  
zinegotzia)

Azken aldian energiaren aferan Biomasa-ri buruz gero eta gehia-



**Bota bertsoa**

Joanes ILLARREGI (Leitzako Bertso Eskola) • Doinua: Iparagirre abila dela...

## Bardoak 2014

<p>Bardoak ere iritsi dira iritsi dotore asko lehen giñun Arbizun ta hara joan beharko giroa joan zen gora egon giñen gustora bueno ta azkenerako nahiko urduri nengoen baina ez zen horrenbestera.</p>	<p>Guk nahikoa lan izan ditugu agurra prestatzen eta baina gustora pasatu dugu lehenbiziko azterketa saio polit askoa errepikatzekoa baina ezda lehiaketa Bardoak ongi pasatzeko da ez da bertso txapelketa.</p>
---	--

go aditzen ari gara. Gure proposamena egin baino lehen, hasteko, argipen bat: berez, biomasa, energi-iturri bezala, jatorri organikoko edozein erregairi buruz aritzeko erabiltzen da (zuhaitzetako adar eroriak; inausketetako, zerrategietako edo paperategietako hondarrak; erregaitarako erabiliko diren erremolatxa eta ekilore landaketak...), baina gure inguruan biomasari buruz ari garelarik, normalki oihangintzako biomasaz ari gara egur-loteak, ezpallak, eta azken aldian pelleta batez ere.

Bertzalde energiarena herritar gehienendako oharkabeko gaia da. Gehienetan azpiegitura komunitarioen bidez: instalakuntza elektrikoa, gasaren banaketa... Gure etxean argia, ur beroa, sua... izaten ditugu, gibelean dagoenaz sobera pentsatu gabe. Berdin gertatzen da lantegietan edo auto eta kamioien joan-etorrietan ere. Zerbitzuaren alde ordaindu beharrekoa ordaindu eta kitto. He-

rritar bezala ez dugu kezka gehiagorik izan.

Kontua hau da: energia bizitzako gauza guztietarako behar dugu eta sistema kapitalistak energiaren kontsumoa, gainerako gauzen kontsumoa bezala ikaragarri hazi du. Gainera energia kontsumo hori akituko diren gaie-tan oinarritu du: petrolio, gasa... Eta orain, horien agorpenaren aitzinean ordezko gaiak bilatzea derrigorrezkoa da.

Baina biomasak petrolioaren eta gasaren moduan mugak ditu. Oihangintzak hamar urtez errausten baditugu, ondotik ez dugu gehiagorik izanen. Hortaz, gure oihanez hamarnaka urtetan zenbat biomasaren eman dezaketen kalkulatu beharra dago eta horren arabera ustiatu. Sinplea eta zentzuzkoa, ezta? Haatik, merkatu ekonomian energiarena eta biomasarena negozio iturria da eta negozio eta negozio artean, ikaragarriko alde dago. Hortaz, biomasarene-

nean ere, herritarren eta ondotik etorriko direnen alde egiteko erabakiak hartu behar dira, zer bai eta zer ez.

Horiek erranik gure proposamena: udalek beren mendietako biomasa gaitasuna ongi kalkulatu behar dute –Baztanek egin hurren du– eta, ondotik, biomasa horren tratamendua lantegi publikoen bidez edo eskualdeko enpresa ttikien bidez egin behar da, gure bazterrek xehatuko dituzten enpresa monopolistiko handiak saihestuz. Hala, partikularren eskuetan gelditzen dena: ongi egindako kalkuluen arabera oihanelan eta biomasa galdara eta teknologiek in-zer ikusia duten arloak. Energia sektore estratetikoa da, horregatik, administrazio publikoak horren kontrola egin behar du. Horrela, eskualdeko udalen inbertsio ahalmena ikusita, eskualdeko mailako biomasa lantegia bulkatu beharko litzateke. Ez utzi azeririk oilategian sartzen!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttiipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**Tel.: **948 63 54 58**Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Azkenean kiloak kentzea errazena izan daiteke, baina zure kolpea edo distira hori mententzea oso garrantzitsua da, gimnasioko lanak-eta ongi eginez. Zerbait agian galduko nuen, norma la denez, baina halako alderik ez nabaritzea lortu dut. Orain gorputza ere gehiago sartzen diot pilotari ematean eta ez da nabari jotzean kolpea galdu dudarik».

**Xabier IBARGARAI**  
Erratzuko palista  
GARA 2014.02.05



«Kontrolatzen ditudan gauzak egitea gustatzen zait. Jautsieretan abiadurak ematen dizu adrenalina, freeriderrean berriz, saltoek eta akrobaziek. Jautsiera progresiboa da, mendi batean orduko 60 edo 70 kilometrora jar zaitezke eta hor akats bat oso txarra da. Saltoetan altuera gehiago baina abiadura tikiagoa da eta kolpeak tikiagoak».

**Hegoi ADO**  
Berako freerider-a  
D. NAVARRA 2014.02.07

**11 galdera labur**

**Nola aurkeztuko zeniguke zure burua?**

Lesakan bizi den gazte bat.

**Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Mendira joan, kirola, lagunekin besta... Ez dut ohitura finkorik. Ahalik eta gauza desberdin gehien egitea gustatzen zait.

**Futboleko edo ez-patadantzari. Zeinetan moldatzen zara hobekien?**

Dantza ez da nire fuertea [irriz]. Baina gustura aldatuko nituzke futbol partidak San Fermín egun bategatik.

**Inauteriak ala sanferminak nahiago?**

Zaila! Biek aunitz gustatzen zaizkit. Hala ere, sanferminak nahiago. Zahar eta gazte, herri guziaz bestan dagoelako eta urte guziaz bizitzen ez diren giro eta momentu xelebrea

dezente bizitzen direlako.

**Zer ekarriko zenuke New Yorketik Lesakara?**

Wall Street-en mugitzen den diru guztia! [irriz]. Egia erran ez nuke deus ekarriko, bakoitzak bere izaera du eta...

**Zein toki bisitatuko zenuke gustura?**

Hegoamerika, Afrika... zerranda aspalditik dut buruan, orain sakela bete behar!

**Zer du Lesakak sobera eta zer faltan?**

Azken boladan euria sobera. Eta faltan, giro gehixeago, nahiko triste dago herria.

**Nola ikusten duzu Lesakako gazteria?**

Gehienak mobilari begira [irriz].

**Oraingo gazteak ez direla lehengoak bezalakoak diote aunitzek...**

Ezta oraingo zaharrak lehenagoko zaharrak bezala ere. Denborak aldatu bezala, denak aldatzen gara.

**'Gure esku dago'?**

Bai.

**Amets bat?**

Mundu aske eta justuago bat.



**Oier IANTZI → Lesakako gaztea**

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!  
Berria erosi taldea

*zalain*  
JATEOKO RESTAURANTE  
Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
w. www.zalain.com  
*zalain*

  
**ERREFORMAK** **ZELA KIROLAK** **dendan**  
Martxoaren 10etik aurrera 2 astez itxita **BERA 948 630 598**

---

**Prezio harrigarriak** **5€tik hasita** **otsailaren 24tik martxoaren 8ra**

**Ez galdu aukera bikain hau!!**

# BORTZIRIAK

INGURUMENA → BERTAKO ERLEAREN ETSAIA DA

## Liztor beltzaren kontrako kanpainari ekinen diote udalek

Udaberri hasieran tranpak jar daitezke

### TTIPI-TTAPA

Bortziritako udalek liztor beltzaren (*vespa velutina*) kontrako kanpaina abiatu dute, «ingurumenaren etsaia, denen etsaia» delakoan eta herritarren laguntza ezinbertzekoa dela jakinarazi dute. Horretarako, informazio biorririko bat argitaratu dute eta TTIPI-TTAPA aldizkariarekin batera banatuko da. Bertan, intsektu kaltegarri honi buruzko informazioa ematen da, zer egin dezakegun, tranpak egiteko modua eta habiak aurkitu eta suntsitzeko moduak agertzen dituzte.

Izan ere, udaberri hasieran hasten da erregin gaztea habia egiten, otsailean edo martxoan,

eguraldiaren arabera. Tenis-pilota baten neurrikoa den lehenbiziko habi honetan hasten dira larbak sortzen eta talde handi samarra osatzen duenean, habi hori utzi eta toki zabalago batera joaten da (zuhaizt, teilatu-hegal...), normalean janaria eta ura dagoen tokitik hurbil.

Horregatik, liztor beltzari aurre egiteko lehen sasoi garrantzitsua orain datorrena da. Juanito Zelaieta Berako erlezainak jakinarazi zenez, «udaberri hasieran, negua pasatu eta janaria behar du liztorrak, azukrea, eta naturak ez dio aski ematen eta horregatik errazagoa da tranpatan harrapatzea». Horretarako sistema erraza ere agertu zuten, botil-tranpa: plastikozko botil baten goiko zatia moztu eta buruz beheiti sartu toki berean, onil baten modura. Azukrea duen likidoa jarri (gara-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Juanito Zelaieta erlezaina, tranpa eredu bat erakusten.

gardoa eta siropea, adibidez) eta likido hori asetero berretu behar da.

### UDAZKENEAN HABIAK SUNTSITU

Erran bezala, hau udaberri hasieran egin behar da. Bigarren fasea udazkenean izanen litzateke, hostoak erortzean errazago ikusten baitira habiak. Norbaitek habiren bat harrapatuko balu eta tokia edo arbola zeharkako marra batekin markatu gabe baldin badago, norbere herriko udal txerara deitu behar du (Arantzan 948 634005; Beran 012 edo 948 630005, Etxalarren 948 635005, Igantzin 948 637781 eta Lesakan 948 637005), habia non dagoen azalduz. Ar-

duradun batek lokalizatu eta markatuko du eta habia pozoitzeko egoki prestatuak diren langileak eta Herriko Etxeko arduraduna joanen dira eta egingen dute egin beharrekoa. Ondotik, x marka jarriko dute.

Bortziritan, Juanito Zelaietak berak asmatutako sistema berritzaile bat erabiliko dute horretarako, 15 metroko altuerara bitarte ailegatzeko den pertika-sistema, pozoia zuzenean habian sartzen duena. «Bertze edozein sistema baino praktikoagoa eta efektiboagoa da, egun osoan egin daiteke, ez bakarrik ilunabarrean edo goizean goiz liztorrak habian daudenean, likido pozoitsu honen erakari egiten bai-

titu... Arratsalde batez zortzi kabi suntsitu genituen...». Bertze inolako sistemekin ezin denean, tiroka erasoko zaie. Zelaietak onartu zenez, «joan den urtean ez zen aunitzirik hedatu liztor beltza, udaberri kaxkarrak eragina izan baitzuen bai liztorrendako, bai erleendako, baina ez dakigu aurretik zer datorkigun». Horregatik, udal ordezkariak bezala, laguntza eskatu diete bortziritarrei.

Miguel Mari Irigoien, Etxalarako alkateak erran zuten «udalek hartu dugula ardura kalte handiagoak saihesteko, ikusiz Nafarroako Larrialdi Zerbitzuak ez duela arazo hau bere protokolan sartzen».

**GIZARTEA** → BERE JAIOTZAREN MENDEURRENEAN

# Julio Caro Baroja gogoratzeko zenbait ekitaldi prestatu nahi dira

Astlehenean egin da horretarako lehen bilera

## TTIPI-TTAPA

Julio Caro Baroja, antropologoa eta historialariaren jaiotzaren mendeurrenaren egitaraua antolatzeko taldea hasia da lanean eta otsailaren 17an, astlehenean egin zuen lehen bilera Beralandetan.

Julio Caro Barojak (Madril, 1914ko azaroaren 13a-Bera, 1995eko abuztuaren 18a) harreman estua izan zuen herriarekin eta horregatik gorazarre egin nahi dio Udalak bere jaiotzaren ehungarren urteurrenean.

Horretarako, lehen urratsak emanak ditu Herriko Etxeak, bi aldiz elkartua baita Nafarroako Gobernuako kultura departamentuko arduradunekin. Horretaz

gainera, familiarekin ere elkartu dira eta behar den laguntza emateko eta duten materiala, filmak, grabaketak eta argazkiak uzteko prestutasuna agertu dute. Herriarrak ere lanerako gogotsu daudela adierazi dute Herriko Etxetik. Marisol Taberna alkaterearen erranetan, «Julio Caro Baroja azaroan jaio zenez, hor izanen dugu helmuga, behar bada uda aldean hasiko gara, Udako Unibertsitatearekin harremanean gaude...». Astlehenean hasiko diren bileretan hasiko dira egitaraua ere zehazten, «baina seguru aski hitzaldi sorta izaten ahal da, erakusketaren bat, ikuskizunen bat...».

## Zahar Etxean Solaslagun

San Jose Zahar Etxeko bizilagunak Solaslaguna egitasmoan parte hartzeko prest agertu



UTZITAKO ARGAZKIA

## Santa Ageda bezperan kantar atera ziren Labiagakoak

Azken urteetako ohiturari eutsi eta Labiaga ikastolako Ikasle, guraso, ataxki-ataxki, irakasle eta ikasle ohiek parte hartu zuten Santa Ageda bezperan. Geldiune bakoitzean Santa Agedaren kantaz gain Patxi Castillo eta Egoitz Gorosterrazuk bertso dotoreak bota zituzten. Ikasle talde batek akordeoi eta panderoekin alaitu zuen ibilbidea. Egunari akabila emateko, ikastolan gurasoek egingo dako berendu goxoa dastatzeko aukera izan zen.

dira. Euskara ikasi, praktikatu edo hobetu nahi dutenek beraiekin hartu-emanen jartzeko aukera izanen dute aurrerantzean. Bertako euskaldun zaharrak dira batzuk, Bortzirietako euskalkian hitz egiten dutenak. Hauekin, Bortzirietako euskalki jasoa ikasteko eta praktikatzeko aukera izango dute animatzen direnek. Bertalde, emakume gipuzkoar batek ere parte hartuko du. Honek euskara garbian, mantso eta zuzen solasten duenez, euskara prak-

tikatu eta ikasi nahi dutenentzat aproposa da. Euskara maila hobetzeko gainera, Zahar-Etxeko kideekin garai bateko ohitura, istorio, kontu zaharren... inguruan so-lasteke aukera izanen dute. Etxea eta familia, eguneroko bizitza, herriko bizitza, tresnak, kultura... urteen poderioroz aunitz aldatu baitira. Ekimenean parte hartzeko interesa dutenek solaslaguna@topagunea.org helbidera idatzi edo 610920673 telefonora deitu dezakete.

## Haziaren Eguna larunbatean

Aurten Bidasoaldeko Hazi Sareak, Bidazi Elkarrekin eta Nafarroako Hazi Sareak bi ekitaldi antolatu ditu haziaren eguna ospatzeko. Lehenbizikoa otsailaren 8an egin zen Elizondon eta bigarrena otsailaren 22an, larunbatean eginen da Beran. 11:00etan hazi trukaketa eginen da Toki Onan eta "Open Space" eztabaida gu-nea zabalduko da. 14:00etan bazkari autogestionatua izanen da.

**KARLOS ALZUGARAY D.O**  
OSTEOPATA | FISIOTERAPEUTA | COL. 178

### TRATAMENDUAK:

- Umeak jaio berriak
- Buruko minak
- Bihurdurak
- Trafiko istripuak
- Anginak
- Bizkarreko minak
- Kirol lesioak
- Masajeak

Itzea, 20 - behea BERA | T. 948 630 187 · 607 853 205

## LESAKA

**GIZARTEA → 20.000 EURO ESKASEKO AURREKONTUA**

# Skate parkea egiten ari dira igerilekua eta igerilekua eta komentu artean

Ekipamendu hori eskatuz 74 sinadura aurkeztu ziren

### Aitor AROTZENA

Igerilekua eta komentu artean skate parkea egiten ari da Udala. IPL eraikuntzak enpresa ari da lana egiten eta hilabete baten buruan bukatua izatea espero da. 20.000 euro

inguruko aurrekontua du ekipamendu berriak, erditsua obrarako eta bertze horrenbertze ekipamendurako. Skate parkea eskatuz hiru sinadura bilketa egin dira eta azkenekoan 74 aurkeztu zituzten.

Tarte horretan ez da aparkatzerik izanen hemendik aitzinera, baina komentua eta fabrika-ko errepidearen arteko bidean aparkaleku berriak sortzeko asmoa



UTZITAKO ARGAZKIA

### Santa Ageda bezperan atera ziren ikastolako ikasle-irakasleak

Tanturumairu ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak eta irakasleak karrikaz karrika ibili ziren Santa Ageda bezperan. Aurtengoan lehen aldiz ikastetxeko txistulari eta atabalarien doinuaren laguntza izan zuten eta Andra Mari Zahar Etxekoak ere bisitatu zituzten.

dagoela argitu dute Herriko Etxetik.

### Zakozarren bilera larunbatean

Otsailaren 22an, larun-

bat eguerdiko 12etan eginen da zakozarren bilera Arrano elkartearen.

Bertze aldetik inauterietako igandean zakozarrak belarraz bete

eta josteko laguntzaileak behar dira. Laguntzaile hauek arratsaldeko 4:30etik aitzinera pilotalekuaren gibelean egon beharko dute.

**KIROLA → ASTEAN BITAN ENTRENATZEN DUTE**

# Sokatira taldea berriz ere lanean

### A. AROTZENA

Otsailaren 20an beteko dira hamar urte Betti Gazteko sokatira taldeak Munduko txapelketa azken aldiz irabazi zuenetik Glasgoven (Eskozia). Garaipen eta tituluz betetako urteen azkeneko lorpen handia izan zen. Bada, orduan aritzen ziren kirolari batzuk txirrintari ezin eutsi eta bertze ba-

tzuekin batera berriz ere sokari lotu dira. Momentuz 5-6 lagun elkartzen dira asteazken eta ortziraletan 19:30ean eskolako frontoian. Gehienak esperientzia dutenak, baina zerotik hasten direnei erakusteko prest daude. Lehenbiziko helburua, maiatzean jokatu den Nafarroako 4x4 txapelketan parte hartzea da. Ani-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hamar urte bete dira sokatira taldeak Munduko txapelketa azken aldiz irabazi zuenetik.

matzen den jendearen arabera, zortzinakako

txapelketetan edo neskekin batera txapelke-

ta mistoetan parte hartzea ez dute bazterten.

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

Lentzea  
Barruntzak  
Martxoak  
Jantzizkoak  
Puzen Maizak  
**KALTEGARRIA**  
Behoko plaza 10 30770 Lesaka  
T. 948 627 514

**IRU BIDE**  
Enbete - Auzola  
Barrutia, 31 Lesaka  
Tel. 948 637 127

**KALTEGARRIA**  
Enbete - Auzola  
Barrutia, 31 Lesaka  
Tel. 948 637 127



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Astearte Inautean aterako dira karrozak herrian.

**OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 27TIK MARTXOAREN 4RA**

## Hurbiltzen ari dira inauteriak

Lau egunez hainbat ekitaldi izanen dira

### Irune eta Itsaso

Aldizkari honetako gehigarri berezian ageri da Etxalarko inauterietako egitaraua, baina herriko kronikan ere aipatuko ditugu ekitaldi nagusiak.

Otsailaren 27an, Ortzegun Gizen eguna ospatuko da. 14:30ean Landagain eskolako ikasleak plazatik aterako dira eta herriko txoko desberdinetan bortz antzerki eta dantzak es-

kainiko dituzte. Aurten goan Arantzako ikasle eta irakasleak ere ikusle izanen dira. Egunari akabera emateko Guraso Elkarteak eskaintako berendua izanen da guztientzat musikaz lagundua.

Martxoaren 2an, igande, Zaldun Inaute eguna, kinto bestak izanen dira.

Martxoaren 3a, Astelehen Inaute eguna ospatuko da. Herriko gazteak bi taldetan banaturik batzuk goiko auzoan eta bertzeak beheko auzoan eskean ibiliko dira egun guzian ze-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Arkupeak elkarteko bazkaria

Urtean behin, herri bakoitzak, Arkupeak elkarteko bere bazkideekin bazkaria egiten du. Hogeita zortzi etxalartarrek otordu ederra egin zuten otsailaren 2an La Basque jatetxean.

har. Goizeko 8etan gosaria izanen da "La Basque" jatetxean eta egunari akabera emateko pintxoak Elutsa ostatuan. Gosarirako izena emateko papera Herriko Ostatuan egonen da otsailaren 24a arte.

Martxoaren 4a, Astearte Inaute, inauterietako azken eguna izanen da. Eguerdian aldean herriari itzulia emanen zaio mozorro eta karrozekin. Ondotik bazkaria izanen da Herriko ostatuan. Apuntatzeko Herriko Ostatuan beretan eman behar da ize-lako otsailaren 24a baino

lehen (10 euro ordainduz). Jubilatuek ere bazkaria izanen dute Larraburuan. Arratsaldeko 6etan hasita Beñat Mitxelena akordeoilaria ibiliko da ostaturatu giroa alaitzen eta taloak izanen dira salgai Altxataren eskutik.

### Larre erreketarako hamar lagun

Mendixorrotx, Artaingo erreka, Irazako, Zimitzu eta Iruasari alderdie-tako herriko lurretan dauden oteak eta zikinak erreko dira baime-na ailegatu bezain abu-

do. Horretarako hamar lagun inguru beharko dira laguntzeko. Lan horietan aritzeko prest da goenak Herriko etxera deitu behar du bere ize-na eta telefonoa emateko.

### "Baso ahaztuak" dokumentala eta solasaldia

Etxalarko naturzaleak antolatuta dokumentala eta solasaldia izan ziren kultur etxean otsailaren 7an. Hogei lagun baino gehiagok parte hartu zuten mahai inguru interesgarri hartan.

José I. Gonzalez Enguita  
Dantzariak  
barukioak eta bitxioak  
tel. 666 235 466

**BORTZIRI  
UNISION ANAIAK**  
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

kattagorria  
ttipi bartela  
% 10eko  
DESKONTUA  
kontuz

# ARANTZA

GIZARTEA → OTSAILAREN 5EAN

## Ehun bago inguru landatu dituzte eskolako ikasle eta irakasleek

Azkilarreako Simoneko arriborda inguruan

**Nerea ALTZURI**

Otsailaren 5ean, goizean, eskolako lehen hezkuntzako ikasleek zuhaitzak landatu zituzten. Urteroko ekimena da eta eskolaren eta udalaren artean antolatzen da. Azkilarrea auzoko Simoneko arriborda inguruan ehunen bat bago landare landatu zituzten. Han bertan, hameketakoa egin zuten indarrak hartzeko, lantxo hau egiteaz gain, joan etorria oinez egin baitzuten. Zuhaitzak izendatu zituzten eta horrela, bakoitzak bere zuhaitzari jarraipena egiteko aisago izanen du.

**Aurrematrikulazioa**

2011an jaiotako neska mutikoez, aurten hiru

urte betetzen dituztenek alegia, otsailaren 20tik 26ra bitartean eskolan izen emateko aukera dute.

**Eskolen IV. jardunaldiak**

Arantzako herri eskola,



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolako ikasleek pagoak landatu zituzten Azkilarrea auzoko Simoneko arriborda inguruan. Gainera, beraien izenak ere jarri zizkieten zuhaitzei.

Etxalar eta Igantzikoa bezalaxe, Nafarroako Landa Eremuko eskolaren parte da.

Aitzineko edizioak, Lekaroz, Auritz eta Lizarran egin ondotik, heldu den maiatzaren

17an, Lesakako Irain eskolan landa eremuko eskolen jardunaldien laugarren edizioa egingen da.

Jardunaldi hauetan eskoletan burutzen dituzten proiektu eta es-

perientziak aurkezten dira, bakoitzaren lan egiteko modua eta eskolek gure herrietan duten garrantzia erakutsiz.

Gure herriko eskolako ordezkari bat ere hantxe izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Baratzea lantzen ari dira eskolan**

Ikasturte honetan ere, eskolako lagunek baratzean lanean segitzen dute. Neguko barazkiak landatu dituzte eta eguraldi ona egiten duen egunetan, uza bildu eta lurra moldatzen hasiko dira udaberrira begira. Lehenengo lana, kisua eta gorotza zabaltzea izango da.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Eskulan ikastaroko taldea**

Eskulanetako taldean asteartero, arratsaldeko 6etatik 8etara sei lagun biltzen dira Zahartxokan. Pui Urtasun iruritarra irakasle dute. Asteazken eta ortzegunetan, herritar talde bat informatika ikastaroan ere aritu da. Pili Lizardi arantzarra ikastaroaren emaila izan da.

**aterpe**  
aitzuen jaiotza etxea

T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net

**ola**  
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatu
- Sagardotegiko menua

**TXOTX GARAIATREKIA**

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 423 130

**IMANOL ITURRIA**  
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137  
E-posta: imaiturria@hotmail.com

Eskatu aurrekontua konpromisoerik gabe

**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOA**

**Fernando Orset Mauleon** arkitektura  
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

GIZARTEA → ILBELTZAREN 25EKO BATZARREAN

## Batzorde erdia berritu du Biltoki elkarteak

Mikel Arburua da presidente berria

### TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 25ean egin zuen Biltoki elkarteak urteko batzarra eta urtero egin ohi duen bezala, zuzendaritza batzordearen erditsua aldatu zuen. Honela, Mikel Arburua Etxeberria da presidente berria, Ana Irigoienen orde. Horretaz gainera, Joxean Hita, Daniel Telletxea, Xeberino Retegi, Joxe Jabier Urtxegi eta Olaia Matxikote dira juntako bokal berriak, datozen bi urtetarako.

Batzordea berritzeaz gain ez zen aparteko erabakirik hartu ba-

tzarreen. Hori bai, mus eta partxis txapelketetan buru-belarri murgilduak daude Biltokikokak. Zortzi eta bederatzikotek emana dute izena hurrenez hurren eta martxoaren 1ean, arratsaldean jokatuko dira finalak.

### Eskolan ere inauteriak

Aitzineko alean aipatu genuen Igantziko inauterien egitarauaren berri. Baina mozorroek egiten duten harat-honatez gain, eskolan ere izanen dituzte bere ekitaldiak. Honela, otsailaren 27an, Ortzegun Gizen eguna ospatuko dute. Eta ortziralean, otsailaren 28an, antzerki saioak eskainiko dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Pilotakadaz pilotakada sakabanaketaren aurka egin dute

"Pilotakadaz pilotakada sakabanaketaren aurka" ekimenaren baitan Frontenis txapelketa jokatu zen otsailaren 7 eta 8an. Gizon-emakumez osatutako hamabi bikote aritu ziren, eta Isma eta Olaia izan ziren txapelkunak, Arkaitz eta Amaia bigarrenak, eta Imanol eta Leire hirugarrenak. Ondotik, afaria izan zen Biltokin.

**BORTZIRIAK**  
**expert**

**KONPONKETAK**  
ere egiten ditugu

**%20**  
DESKONTUA  
SUKALDE  
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

## GIZARTEA

ERREPIDEAK → N-121-A ERREPIDEA

# Bera inguruan zola berri eta radarrak paratuko dituzte

Gobernuak «erdizkako soluzioa» hartu duela uste dute udal hautetsiek

## TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoaldeko alkate eta zinegotziak Luis Zarraluqui Nafarroako Gobernuko Sustapen kontseilariarekin elkartu ziren otsailaren 6an, N-121-A errepidearen egoera aztertzeko. Bileran, Departamentuak bide-zola, seinaleak eta balizamendua hobetu eta Bera inguruan radarrak jartzeko asmoa azaldu zuen. Udal ordezkariak

«soluzio osoa eta sakona» eskatu zuten errepidearendako. Udalen aldetik, Marisol Taberna (Bera), Xeberiano Txoperena (Lesaka), Amets Inda (Sunbilla), Alberto San Miguel (Oiz), Garbiñe Elizegi eta Florentino Goñi (Baztan) eta Gloria Agerri (Doneztebe) izan ziren bileran.

Kontseilariak N-121-A errepideko Berako tartean bide-segurtasuna hobetzeko Departamentuak egindako proposamenen berri eman zien, izan ere, urtarillaren 23an, bi pertsona hil ziren auto istripu batean. Proposamenaren barrenean sartzen da seinale bertikalak zein



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuko eta Baztan-Bidasoaldeko udal ordezkariak bileran.

horizontalak hobetzea. Hortaz, 13 seinale berri jarriko dira, arriskuak oharatarazi eta abisatzeko, eta informaziorako panel osagarriak. Gainera, norabidea adierazi edo erreiak hautatzeko geziak eta gelditzeko marrak pintatuko dira. Bertzalde, zola berrituko da eta ibilgailu geldoentzako erreia laburtu egingen da, eta galtzadaren ertzean zabalera ere itxi egingen da.

Baztan-Bidasoaldeko udal ordezkarien us-tez, neurri egokiak izan

arren, ez dira nahiko errepidearen arazoa moldatzeko. Hortaz, «soluzio sakona eta osoa» eskatu zuten, izan ere «arazo handia duen errepide batean partxeak jartzen ari dira bata bertzearen ondotik». Soluzioa ematerakoan errepidearen trafiko handia eta ibilgailuen abiadura kontuan hartu behar direla jakinarazi zuten. «Neurri hauekin egoera hobetuko da, baina ez da arazoa soluzionatuko». Beraz, bileratik «erdizka» atera

zirela aipatu zuten. Garbiñe Elizegi Baztango alkatearen erranetan, «Nafarroako Gobernuak gastatzen duen diruak alde batera uzten du gure eskualdea. Errepide honi lehentasuna eman beharko litzaioke, trafiko eta istripu kopuru handia duelako».

Sunbillako bidegurutzei buruz ere galdegin zioten kontseilariari, baina obra hori lehen-tasunen artean dagoen arren, aurten ez omen dago aurrekontuan horretarako dirurik.

**F. LANCHAS**  
Akuboladorea eta berrizatzaila  
Parket eta parket flotatzaila  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 Mt: 607 406 781

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Jose Luis B. Carr  
Tlfo/Fax: 948 630 018 Karritonbarri 12 - BERA

**JAKONE-GOKOTEKIA**  
948 630 786  
Aitzala, 21 - BERA

**MARITX**  
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta  
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

**edurne**  
arropadenda  
ttiipi bartela  
%5eko  
DESKONTUA  
30etik gorako  
gastuan

**ILANBONIA, s.l.**  
BILTEGIA 948 630 102  
FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - otoa 21-22  
31780 BERA

**sarobe**  
geotekia olindegia  
Pr de etegara 25 bajo 1.948.630.899  
31780 BERA (navarra) www.sarobe.net

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA



OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 8AN

## Kantu Zaharren besta eginen da kanpinean

Hirugarren edizioa beteko du aurtengoan

**Maidier PETRIRENA**

Ariztigain kanpinean III. Kantu Zaharren Eguna antolatu dute martxoaren 8rako. Ahate moussa paxazko ogiarekin, urdaiazpikoa, arrain pudina, kroketak, bildots errea entsaladarekin eta gazta-tarta yogur izozkiarekin izanen dute menuan, dena ardoarekin, kafearekin eta koparekin ongi bustia. Bazkaldu bitartean kantuan ariko dira eta bazkal ondoren eta arratsaldean ere berdintsu. Francisco akordeolariaren laguntzarekin Kanta zaharrak abesteko aukera izanen dute, Angel Mariezkurrena, Alberto Zunzarren eta Aitor Ibarra *Jalisko* kantuen gidari dituztela.

Bazkaria, afaria eta egunean banatuko den liburuaren truke 48 eu-

ro ordaindu beharko da. Izena eman nahi duenak Ariztigainera deitu beharko du.

### Guraso elkarte

Guraso elkarteko bilera izan zen otsailaren 11n. 2013ko kontuetaz hitz egiteaz gain juntako hiru kide aldatu zituzten. Ines Elizondo, Itziar Altzuri eta Maite Jorajuriari, 2 urte pasa ondoren uzteko tenorea ailegatu zaie. Hori en ordez, bi bolondres aurkeztu dira Silbia Martinez eta Marisol Sanchez eta hirugarrena, zozketaz, Nerea Petrirena izan zen.

### Ulibeltzak batzarra


Ulibeltzak elkarteak urteko batzarra eginen du otsailaren 22an, larunbat arratsaldeko 6etan. Iazko aktaren onespina, 2013ko kontuak, obrak, sozio berriak eta errezibo bueltatuen afera aztertuko dituzte.



ARGAZKIAK: JONTXU ANZIZAR

### Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa Bustitzen

Urtarrilaren 31n Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zen. Aurreko urteetan Ulibeltzak Elkartearen ospatzen zen baina aurtengoa Bustitz ostatuan egin zen. 13 bikotek hartu zuten parte eta txapelak Mikel Arrieta eta Pablo Maritxalar izan ziren. Txapelakordeak berriz, Julen eta Urko Ibarra. Bi bikoteek aukera izan dute otsailaren 15ean Iruñeko Arrano elkartearen bertze kanporaketa batean parte hartzeko. Sariak Antrotokiko gazteek eman dituzte laguntza moduan. Beraz antolatzailea den Jontxuk eskerrak eman nahi dizkie Antrotokiko gazte guztiei.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

### Ulibeltzak mendi taldekoak Saioan

Ulibeltzak mendi taldekoak, beraien irteerarekin segituz, Saioara joan ziren otsailaren 9an. Elurra zuten baina kaxkora ailegatu zen laukotea.

BAZTAN-BIDASOALDEA → SOLASALDIAK ESKAINTZEN ARI DIRA ESKUALDE OSOAN

## Etxeko eta auzoko konposta egiteko kanpaina berriari konpostagailu bat doan eska dezakete pertsona guztiek

**TTIPI-TTAPA**

Etxeko eta auzoko konpostaren inguruko kanpaina berri hasi da Baztan-Bidasoaldean. Kanpaina honetan materia organikoaren birziklapenean urrats bat aitzinera eman nahi da eta zonaldeko herri guztietan bilerak egiten ari dira.

Kanpainaren ezaugarriak direla eta, bi fasetan egitea erabaki da: lehenbizikoa otsailaren 10ean hasi zen eta zonaldeko herrien erdia hartuko ditu; eta bigarrena

martxo bukaeran hasiko da eta gelditzen diren herrietan eginen da. Bileretan, euskara nahiz gaztelera erabiliko da, parte-hartzaileen arabera.

Gainera, herri bakoitzean bi bilera mota egiten dira. Lehenbizikoa zonaldeko hondakinen kudeaketa orokorraren inguruan eta zehazki materia organikoaren inguruan arituko dira, eta bigarrenean, aldiz, konpostajea zer den, zer botatzen ahal den eta zer ez, nola egiten

den, etabar, azalduko da. Baratza edo belar zati bat dutenek eta kanpaina izena ematen duten bizilagunek konpostajea egiteko behar den guztia doan hartu ahal izanen dute: konpostagailua, aireagailua eta konpost gida, konpostajearen inguruko ikastaroaren ondotik banatuko direnak. Gainera, konpostajearen prozesuaren zehar teknikoaren bixita hartu ahal izanen dute eta laguntza eskatu ahal izanen dute dituzten zalantzak edo galderak argitzeko.

Konpostagailua paratzeko tokirik izan ez, baina beraien hondakin organikoak konpostatu nahi dituzten bizilagunek, auzoko konposta egiteko aukera izanen dute.

# DONEZTEBE

GIZARTEA → URTARRILEAN EGIN ZUTEN URTEKO OHIKO BATZARRA

## Asier Mutuberria da Kasino elkarteko presidente berria

Juan Telletxea eta Pablo Elizondo ere sartu dira batzordean

### TTIPI-TTAPA

Casino - La Union Elkartearen urteko batzarra burutu zen urtarrilean, ohitura den bezala. Bertan erabaki ziren urte osoan egin beharreko lanak eta zuzendaritza ere berritu zen. Mai Andueza eta Bixente Gelbentzuk zuzendaritza utzi dute eta beraien ordean Juan Telletxea eta Pablo Elizondo sartu dira. Segitzen dutenak: Lander Erkizia, Mari Jose Iribarren, Isabel Ibarrola eta Asier Mutuberria. Azken hau izanen da Elkarteko lehendakaria aurtan.

### Zinema

Erreka eta Mendaur guraso elkarteek, Gazte Burrenba eta Doneztebarrak elkartearen laguntzaz prestatutako saioek segida izanen



ARGAZKIA: ORIAMENDI 2010

### Julen San Miguel eta Patxi Olazar urtarrileko erremontelari onenak

Master txapelketako finala galdu arren, Oriamendi 2010 enpresak urtarrileko erremontelari onena izendatu du Julen San Miguel. A multzoko lehena izan da, 37,43 punturekin. Urrizak 35 puntu eta Utergak 34,5 puntu eskuratu ditu. B multzoan, berriz, 40na punturekin berdinduak gelditu dira Larrañaga eta Patxi Olazar herri-tarra. Beraz, biak partida guztiak irabazi dituzte, baina gipuzkoarrak partida bat gehiago jokatu duenez, sei, beretzat izan da rankingeko lehen postua. Olazarrek jokatu dituen bostz partidak irabazi ditu eta bertze edozein hilabetetan sailkapen buru izanen litzateke, baina urtarril honetakoan bigarrena da.

dute martxoan. Hilaren 2an *Munduaren bila* dator filma eskainiko dute 16:30ean eta *Zipi y Zape* 18:30ean. Martxoaren 16an, *Winkiren zaldia* 16:30ean eta *Salido de cuentas* 18:30ean.

### Ba al zenekien

Aitzineko alean Errekako senior eta infantil multikoak txapeldunen fasean sartuak direla erran eta Iban eta Txomin Mindegiak entrenatutako jubenilak ere txapeldun izateko lehian ari direla atzendu genuela.

### ELGORRIAGA

Bostorratzeko borda inguruko hesiaren ateak puskatu eta ebatsi dituzte

### Mattin LARRALDE

Udazken aldera aipatu genuen Bostorratzeko borda eta ingurua txukun gelditu zirela, mahaia eta egurrezko hesia paratuta. Lan hau dirulaguntzarekin eta herriko bolondresen lanarekin egin zen. Bada, ez dirudi denen gustukoa izan denik, berriki hesiaren ate bat puskatu agertu baita eta bertzea falta da. Bertzeek egindako lana hondatzeak mesede egiten al dio norbaiti?

### Kaskezur taldearen kontzertua

Kaskezur taldea aditzeko aukera izan zen otsailaren 8an Herriko Ostatuan. Giro ederra paratu zuten eta musikaren ondotik ere bestak segitu zuen. Behin inauteriak pasatuta, kontzertuak antolatzen hasiak dira Herriko Ostatuan, joan den urtean bezala.

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
DONEZTEBE

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

Gure Haragia  
Nuestra Carne

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 1EAN

## Malerreka kantuz ekimena herrira ailegatuko da

### Eguerdian abiatuta

#### Fermin ETXEKOLONEA

Malerrekako Euskara Batzordeak antolatzen duen Malerreka kantuz emanaldia martxoaren 1ean izanen da Zubietan. Eguerdian abiatuko dira plazatik abeslariak eta musikariak eta kalez kale abesten ibili ondotik, Udalak bokaduren bat eskainiko du kantarientzat.

#### Konpostatzeko kanpaina

Baztan-Bidasoaldea osoan konpostajea bul-tatzeko egiten ari den

kanpainaren baitan, martxoaren 7an heziketa bilera egingen da arratsaldeko 7etan estalpean. Denbora horretan, aprobetxatu nahi da mankomunitatean eskaera egin duten partikularrei konpostagailua emateko. Joan den astean, otsailaren 13an eta 14an ere egin ziren bilerak, afera honi buruzko informazioa emateko.

#### Errota berriz ere martxan

Berriz ere Maixux Petrikorena errotazainak hartu du errotaren ardura, berak lortu baitu puntuaziorik altuena. Lehiaketan, Edorta Mu-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

#### Bardoak 2014ko saio dotorea eskaini zuten estalpean

Bardoak 2014 bertso ekimeneko saioa burutu zen otsailaren 7an. 50 bat lagun bildu ziren estalpean, giro onean. Saio antolatzailea *Etxeko kontuk* izan zen (Iturengo Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaiak eta hauen lehengusina, Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoien aritu ziren bertso kantari, baina argazkian ageri denez, laguntzaile ugari izan zuten hasierako agurra kantatzeko eta koreografiatzeko). Talde gonbidatua, berriz, *Mirristi Drimtim* (Xabier Terreros, Unai Uberetagoena, Asier Saragueta). Bertsolariak harrera beroa jaso zuten saio osoan, bertso saio polita atera zen eta etxeko taldea izan zen nagusi. Partehartzaileak eta entzuleak ere kontent gelditu ziren. Zorionak.

rua zen bigarren zerrendan eta Juan Luis Loiar-te hirugarren. Urrira bitarte izanen du ardura hori Maixuxek, ordura arteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izanen baita. Ondotik,

normalean urtea akitu arte Udalak ordaintzen dio soldata.

#### Literatur solasaldiak

Apirilaren 3an egingen da literatur solasaldia

herriko estalpean arratsaldeko 7etan. Garbiñe Ubedaren *Hobe bizirik* liburuaz hitz egingen da, beraz, irakurtzen hastea komeni da. Idazlea bera izanen da solasean.

1951tik  
*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea  
**Merkealdia**

edredoi fundak - albornozak - edredoi noralkoak - ohe estalkiak - maindireak - mantelak - kuxinak - toailak  
Tafalla, 13 - IRUINEA - 948 230 634

## ITUREN

KULTURA → BERTSO EKIMENA

# Gorosterrazu anaiek ekin diote Bardoak 2014 txapelketari Zubietan

Etxeko kontuk taldean ari dira Amaia Elizagoien lehengusina eta bertze laguntzaileekin batera

## Arkaitz MINDEGIA

Jadanik abian da Bardoak 2014, taldeko Nafarroako bertso txapelketa edo ekimena. Hainbat eta hainbat talde (16 talde, 60 bertsolari eta hainbat laguntzaile) ari dira lanean burubelarri eta jadanik beraien dohaiak erakusten ari dira.

Herriko bi bertsolari, Iker eta Egoitz Gorosterrazu anaiek parte hartzen ari dira, hain zuzen ere *Etxeko kontuk* taldean. Bi anaiek eta beraien lehengusina Amaia Elizagoien dira bertsolariak, aurkezlea Maialen Kamino eta or-

dezkoak Maialen Arregi, Oihane Retegi eta Jaione Elizagoien.

Ederki prestatu dute txapelketa eta nabari da. Otsailaren 7an Zubietako estalpean estreñatu ziren *Mirristi Drintim* taldearen aurka (Iruñeko eta Bortzirietako bertsolari batzuekin osaturikoa) eta beraiek irten ziren garaile, hurrengo txandarako puntua eskuratuz. *Etxeko kontuk* taldea izan zen antolatzailea eta saioa hasi baino lehen berendua izan zen. 45-50 lagun arteko koadrila bildu zen, harrera beroa egin zieten bertsolariak eta ordainetan saio politaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Hurrengo saioa otsailaren 21ean dute Etxarrin *Bilixkorriko* taldearen kontra.

## Ander Erasun kanporatua

Nahiz eta gure herriko aizkolaria urrezko

mailako Euskolabel txapelketatik kanpo egon, ahalegin handia egin du jokatu dituen bi kanporaketetan.

Txapelketa honetan, Jon Rekondo aizkolari leizarra izan du lagun. Bi saio jokatu dituzte, lehenbizikoa Urrozen urtarrilaren 26an eta bigarrena Leitzan otsailaren 2an. Urrozen galdu egin zuten eta Leitzara gogotsu eta indartsu joan ziren bi gazteak, txapelketan aurrera egiteko zuten azken aukerari eutsi nahian. Parez pare berriz aurkari gogor eta indartsuak zituzten, Azurmendi eta Otaño, beteranoak biak eta gaur egungo Euskal Herriko txapelkunak. Kanporaketa gogorra izan zen eta lehiak azken momentura arte iraun zuten. Zortzi segundugatik, txapelketari adio esan behar izan zioten.

Seguru beste txapelketa batean aurrean ikusiko ditugula berriz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ibai Berregi, Sagrarioaren semea, boleto irabazlearekin.

## SAGRARIO MINDEGIA DA 5.885 ZENBAKIAREN JABE Eskualdeko komertziantek zozketatutako autoa Aurtitzera

### TTIPI-TTAPA

Baztango Bertan, Berako Larun Haizpe, Doneztebeko Doneztebarrak eta Lesakako Zerbitzuen elkarteak, Doneztebeko Talleres Santestebanen laguntzaz zozketatutako Dacia Sandero autoak badu jabea: Aurtizko Sagrario Mindegia. Doneztebeko Lacar Etxean erosi zuen 5.885 zenbakia duen txartela eta beretzat izanen da autoa.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ☞ Langile autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-Kontrabaturako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Itasoa hurbilagot



948 630 981 • 620 828 757  
Itzea, 6 • BERA • NAFARROA



# DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 7TIK 9RA

## Aurtengoan ere primeran joan dira inauteriak

Gazteak auzoz auzo ibili ziren eta haur eta gaztetxoak monjak ere bisitatu zituzten

### Izaskun GOÑI TELLETXEA

Aurtengoan ere primeran joan dira Donamariako inauteak. Ostiralean eguraldi onaren laguntzaz herriko gazteak auzoetan barrena ibili ziren. Gauean primerako afaria egin ondok goiz joan ziren etxera hurrengo egunerako indarrak hartzera.

Larunbatean, goizean goizetik hasita, gosari ederra izan zen Herriko ostatuan, eta gazte andana elkartu zen. Ondoren auzoz auzo ibili ziren giro ederrean. Arratsaldean eguraldiak okerrera egin arren, berriro ere auzoz auzo ibili ziren trikiti eta panderoaren laguntzaz. Tenore berean, herriko haur eta gaztetxoek ere primeran pasatzeko aukera izan zuten. Artze auzotik hasita, koadrila ederra juntatu ziren eta bi karrozetan eta Natalia akordeojolearen laguntzaz, monjetara joan ziren. Hemen ere monjekin gustora egoteko aukera izan zuten,



ARGAZKIAK: IZASKUN G.T.

Larunbatean ohiko bixita egin zieten monjei. Beheko argazkian, gazteak auzoz auzo.

horrela ibili ziren gaztetxoek, auzoz auzo traktoretan eta musikarekin. Ondoren, herriko frontoian jolasean ibili ziren, pañuelito, sokatira, zaku lasterketa... eta eguna ongi bukatzeko, afari ederra izan zuten.

Gazteek ere afaria izan zuten herriko ostatuan, afaledoko giro ederrarekin.

Igande arratsaldean ere jende andana elkartu zen txokolatadara.



### Ba al zenekien

Herriko zenbait jardueri buruz hitzegiteko bilerara otsailaren 28an izanen dela erabileran anitzeko gelan 19:30ean.

## GAZTELU

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN LEHEN ASTEBURUAN

## Giro ederrean ospatu dituzte inauteriak

Gazteak puxka biltzen ibili ziren etxez etxe musikarien laguntzaz

### TTIPI-TTAPA

Gazteluko inauteriak otsailaren 1 eta 2an os-

patu ziren giro ederrean.

### ETXEZ ETXE

Larunbatean arratsaldeko 3:30 aldera abiatu ziren etxez-etxe puxka eta diru eskean, borondatearen arabera. Etxe batzuetan mendua ere eman zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haur eta gazteak eskean ibili ziren etxez etxe.

Gazteluko gazteek eskerrak eman nahi dizkiete etxeko atea zabaldu zieten guziei. Pandere-ta eta trikixarekin Maia-

len, Maitane eta Leire ibili ziren. Gauean afaria izan zuten Herriko Ostatuan eta 20 haur eta 34 heldu bildu ziren.

Igandean, berriro, bazkaria eta afaria izan zuten eta 30 bat pertsona elkartu ziren inauteriak akitzeko.

## BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → NATURAREKIN BAT

# Eskolako haur eta gurasoak udaberria prestatzen hasi dira neguan



Kabi-kutxak paratu dituzte eskola ondoan eta lizarrak landatu dituzte Salbatore ermita aldean

ren laguntzarekin, eskola inguruko zuhaitzi batean hainbat kabi-kutxa paratu zituzten, kaskabeltza eta amilo-txa bezelako txoriek kabi-errezago egin dezaten. Udaberrian zehar bisitatu beharko... ea animatu diren!

Aste berean Salba-

tore ermita inguruan hainbat lizar ere landatu zituzten, udalaren laguntzarekin. Leku ederra eta airosoa da, herriko ikuspegi paregabea eskaintzen duena eta, dudarik gabe, uda sasoiari itzal pixka bat izatea eskertuko da.



### Arantxa ITURRALDE

Herriko eskolako haurrek eta gurasoek ederki aprobetxatu dute negua, udaberria prestatzeko. Otsail hasierako astean, Juan Goñi hegaztien aditua-

### Ba al zenekien

**Beintzako Txillategiko Juan Mari Goñi moto gidariak Espainiako moto-kros txapelketako lehenbiziko proba egingen duela asteburu honetan Albaidan (Valentzia). Txapelketa honetako 8 probetan parte hartzeko asmoa du.**



ARGAZKIAK: MIKEL ALBISU

Goitiko bi argazkietan, zuhaitza landatzen eta kabi-kutxak zuhaitzetan jartzen. Beheitian, haur eta guraso taldea.



GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

# URDAZUBI

URDAZUBIKO INAUTERIAK | Martxoak 2, 3 eta 4



## EGITARAUA

### MARTXOAK 2, igandea

**Goizean** gazteen **gosaria** izanen da Gaiñara elkarteak **09:00** mozorroak jauntzi eta Dantxarinetik barna, **bentaz-benta** abiatuko dira eskean. Modesto Ordoki akordio-lariak jarriko du animazioa.



### MARTXOAK 3 eta 4, astelehena eta asteartea

**10:00** elkartuko dira Karretero ostatuan eta denak elkartu **ondotik baserri** ibiliko dira eskean. Bi egun hauetan Mari Joxe Etxeberria eta Jaione Kordobaren trikitixa eta panderetaren doinuek alaituko dute herria.



ARGAZKIAK: IONE BENGOTXEA



## Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

**INAUTERI ON BATZUK PASA!!**

☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

**PINTURAS**  
Iñaki Alzuyel  
margoak

*ongi pasa inauteriak!*

Tel: 659 862 417

Barriji etxea - Lardibar Auzoa - URDAZUBI  
pinturasaluzuyel@yaho.com

## PINTURA

DEKORATIBOA ETA INDUSTRIALA

Dekorazio: etxebatuek, boladerak

Fotokopiak - Barmilakak - Plakak

Lakatuak eta berrizatuak kobak

Herria eta egurren

erabileraren gainean da

## JOSENEA

### ZONE AUTO



Urdazubi • Tel. 948 599 090

[www.josenea.es](http://www.josenea.es)

## SANTIAGO VILLARES S.L.

Ongi pasa inauteriak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN

SALMENTA ETA ESPORTAZIOA

LASTOA

LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777

T. (0034) 948 59 91 34

Fax. 948 59 91 56

[info@santogiovillares.com](mailto:info@santogiovillares.com)

[www.santogiovillares.com](http://www.santogiovillares.com)

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

facebook

[www.facebook.com/ttipi.ttapa](http://www.facebook.com/ttipi.ttapa)  
[www.facebook.com/ttipi.net](http://www.facebook.com/ttipi.net)

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



## MONTXO OSTATUA

### TABAKO-BENDA

*ongi pasa inauteriak!*



Plater karbiratuek | Ojantokook | Pintxok | Menuak enkaraguz

Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Dantxarinetatik 2 km. tara

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039

**Arozena**  
ostatu · jatetxea

Gosariak  
bazkariak  
eta afariak  
*ongi pasa inauterik!*

T. 948 450 443  
Leitzako errep., 84 - Doneztebe

**EDERKI** tailerra

Peugeot eta Citroën  
Zerbitzu Ofiziala

Hidraulika "latigilloen" moldaketa

**24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA**

*ongi pasa inauterik!*


Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

**OLAZAR**  
aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatzailak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1  
Tfnoa - Faxa:  
948 456 183  
Mugikorra:  
649 139 365  
**DONEZTEBE**

*Ongi pasa inauterik!*



**DONEZTEBEKO INAUTERIAK** | Otsailak 27, 28 eta martxoak 1



**EGITARAUA**

**OTSAILAK 27, ortzeguna**  
**20:00** Trikipoteoa **21:00** Afaria Herriko Ostatuan.

**OTSAILAK 28, ortzirala**  
**09:00** Baserrietan eskea. Gazteak bi taldetan banatuko dira eta behin baserrietako eskea egin eta gero, eguerdian berriez ere elkartu eta Leitzarako bideko tailerrak bisitatuko dituzte. **14:00** Bazkaria Herriko Ostatuan. Bazkalondan musika Modestorekin. **21:00** Kuadrilen afaria.



ARGAZKIAK: DONEZTEBARRAK ELKARTEA

**MARTXOAK 1, larunbata**  
**16:00-19:45** Karrozen desfilea Aparandik aterata **20:00-22:00** Jalisko eliz atarian **22:00** Kuadrilen afaria.



ORIGINAL

**Kimetz**  
Belardenda

Leitzako errep. 3 behean | DONEZTEBE | Tel 948 451 473  
kimetzbelardenda@hotmail.com www.kimetzbelardenda.com

Egin zaitez  
**ttipi-ttapa**ren  
harpidedun

**ttipi-ttapa**

(0034) 948 63 54 58



**Txomin SAPUPPO ALEGRIA** | Doneztebeko gaztea

## «Piztien gisara ibiltzen gara karroza gainean»

Dama taldeko abeslaria, Gazte Burrenbako zuzendaria... baina datozen egunetan, guztiaren gainetik «inauterizale» izanen da. Aipatu digu «sobera abudo akitzen direla» eta horregatik irauten duten bitartean «egurra ematea» dela ongi pasatzeko sekretua.

### Zein da Doneztebeko inauterien berezitasuna?

Beti pentsatu izan dut Doneztebeko inauterien berezitasuna desfilea dela. Klase guzietako karrozak, mozorroak... ikusten dira egun horretan. Herritar guztiak ateratzen dira egun horretan. Gainera, nik uste karroza beraren itxurak, zerbait perfektua egitea baino, karroza gainean doan jendeak sorrarazten duen giroa dela azpimarratu behar dena. Inauteriak antolatzen edota bertan parte hartzen dugun guztiok aunitz sentitzen ditugu eta saiatzten gara egun osoan gozatu eta ongi pasatzen. Karroza gainean jendea emozioz bete da egoten da, besta gogoz eta antzezten duen paperean sartua, hori ikusle gisa dagoen jendearengana ere iristen da, denak kutsatzen dira. Guztiok elkarrekin giro bikaina sortzen dugu herrian. Gazteok gehienbat piztien gisara ibiltzen gara karroza gainean, ez da lotsa existitzen eta barnean dugun guzia ematen dugu. Egun osoko besta izaten da eta ez da aspertzeko tarterik izaten.

### Noiz hasten zarete karroza prestatzen?

Hilabate bat lehenago hasten gara gutxi gora behera baina beti zerbait pasatzen zaigu eta azkenengo momentuan presaka ibili behar izaten dugu. Aurtengoarekin ere horixe gabiltza lanean, baina zer egin behar dugun jakin nahi duena... etor dadila larunbatean Doneztebera. Mozorroak ere norma-

lean lehenagotik erosten ditugu. Hala ere, ziur nago bakarren batek egun berean zerbait inprobisatuko duela. Ortzegun eta ortziralean adibidez, bazkarirako eta baserriz baserri ibiltzeko hala egiten dugu, lau trapu, txapela eta karrakara.

### Orain arte egindako karrozetatik zein duzu bereziki gogoan?

Ez dut inoiz atzenduko orain dela 10 urte egin genuen karroza bat. Labe handi bat egin genuen eta eltzariz mozorratu ginen. Oroitzapen arras politak ditut egun hartaz.

### Zein da hainbertze besta artean irauteko sekretua?

Lehenago inauteriak igande arte irauten zuten baina azkeneko urteetan larunbatean akitzen dira, egun bat guttiago beraz. Hortaz, aguantzeko sekretua? Egia erran sobera abudo akitzen dira! Horregatik, egurra eman behar da irauten duten bitartean. Akitzen direnean bestondoa esperoan egonen dela badakigu baina, ez gara inauteriak hasi aitzinetik horretan pentsatzen hasiko...



UTZITAKO ARGAZKIA

Txomin Sapuppo doneztebarra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazteak bi taldetan banatuta baserriz baserri ibiltzen dira .

**EMAKUMEA - GIZONA**

**ANIBOR**  
TELEPAINDERIA

ONGI PASA INAUTERIAN!

Parroikia, 21 DONEZTEBE | T. 669 552 283

**ONGI PASA INAUTERIAN!**

**Angie**  
Instituto de Estudios

University of Cambridge azterketara aurkezteko prestakuntza Ekaineko deialdirako epasa aprile 1

Eltzagibela, 7 behea  
DONEZTEBE - T. 626 908 076  
angieacademy@gmail.com

Itzulpen lanak egiten dira  
Eskola laguntza  
**ANIMATU**

**Mendaur Motor**

Autoen konponketa eta salmenta  
Txapa eta pintura

ongi pasa inauterian!!

Leitzaka bidea • DONEZTEBE | T. 948 450 333

**Merkaopari**  
www.merkaopari.es

**MOZORROTU ZAITE!**  
**BERTZELA EZ DA BERDINA IZANEN**

**DONEZTEBEN** GOZATE 3.000ETATIK 11.000ETARA  
ARRATZALDEAN: 11.000ETATIK 30.000ETARA  
ATZELIENETIK LARUNBATERA.

**ELBETEko POSADA**  
 • Eguneko menua • Plater konbinatuak  
 • Plater itxiak prezio berezian  
 • Asteburuetan karta  
 • Asteburuko menu berezia  
**ELBETE** • Karrantxundi z/g  
 T. 948 581 519  
 info@posadaelbete.com  
 www.posadaelbete.com

**MARIA MILAGROS ELGEZUA**  
 ABOGATUA

**ONGI PASA INAUTERIAK**

Jaime Urrutia, 26 - 1  
 31700 ELIZONDO  
 Tel eta Faxa: 948 452 370  
 M: 482 635 839 - 429 925 143  
 marielgezuamail.com

**LANTZEHAN PARTHULARAK**

**onegin** Herbodietetika Ekodenda

Dietista nutrizionista  
 Naturista-homeopata  
 Opariak / Elikadura ekologikoa  
 Odol analisiak  
 Biocuantum analisisa: zirkulazioa, bitamina falta, digestioak...  
 Giharraren neurketa, grasaren neurketa, uraren erretentzioa...

**ONGI PASA INAUTERIAK!**

Jaime Urrutia, 26 Behea  
 31700 ELIZONDO  
 948 581 932 oneginelizondo@gmail.com

*Beharlotanda eta Dietetika*

**Natura Elxea**  
*Osasun zentru naturala*

**DESKONTUAK**  
**OTSAILA eta MARTXOAN:**

Argaltzeko dietetan -%10  
 Kosmetika naturalan -%20  
 Jalea eta bitaminetan -%20  
 Janariaren intolerantzien analisisa -%10

**ONGI PASA INAUTERIAK!!**

Santiago, 47 | ELIZONDO | T. 948 580 203

# ELIZONDO

**ELIZONDOKO INAUTERIAK | Otsailak 27, 28 eta martxoak 1**



## EGITARAUA

**OTSAILAK 27, ortzeguna**  
**Oilar Dantza** edo **Orakunde** eguna ospatuko dute Elizondoko ikastetxeetako haurrek. Urtero bezala, karrikadantza, bazkari eta jostetak izanen dira. **Arratsaldean, oilarren ordua** izanen da.

**OTSAILAK 28, ortzirala**  
**09:00** gazteak elkartu eta **puxka biltzeari** hasiera emanen diote.  
**16:00** haurren desfilea izanen da. Desfilearen **ondotik, txokolatea** eta **dantzaldia** haurrendako.  
**22:00** Jantziloren erretzea plazan.



**MARTXOAK 1, larunbata**  
**12:00** mozerro eta **orgen desfilea** hasiko da.



ARGAZKIAK: ONDIKOL



Juan Mari ONDIKOL | Elizondoko argazkilaria

# «Denak bestan ikusita, kamara utzi eta bestan sartzeko gogoia ematen dit»

Ohi bezala, argazki kamara eskuetan ikusiko dugu Juan Mari Ondikol inauterietan, baina bestari ere tartea egingen dio



«Lo egitera eta dutxara joaten naizelarik». Orduantxe ikusiko dugu Juan Mari Ondikol elizondarra argazki kamararik gabe. Halaxe aitortu digu berak umoretsu. Elizondoko Nafarpress liburu-dendan lan egiteaz aparte, argazkilaria amorratua da Ondikol, Diario de Noticias egunkarirako argazkilaria ere badena. Ttipi-Ttapari ere maiz uzten dizkio bere irudiak. Baina nor dugu egiazki Juan Mari Ondikol? Bada berak aurkeztu digun bezala, «Elizondon bizi den mutil saltsero bat, bere lagunen lagun».

Ate joka ditugun Elizondoko inauteriak gustuko ditu Ondikolek: «**adin guzietako jendea ateratzen da besta egitera**» eta hori da inauterietatik gehien gustatzen zaiona. Berak honela ospatzen ditu: «**goizean egunkarirako argazki batzuk atera eta arratsaldean ahal bada mozorrotu eta bueltaxka bat eman**». Duela urte batzuk inauteriak aste tartean ospatu beharrean asteburura aldatu zituzten Elizondon, jende gehiago biltzeko helburuarekin. Ondikolek onartu digunez, «**asteartez nahiago nituen inauteriak, hori delakoz inauteri eguna**». Baina bere irudiko «**normala da larunbatean egitea, jende gehiagok duelakoz besta**». Eta hori nabaritu du, «**azken urte hauetan jende gehiago ateratzen da inauterietan, larunbata delakoz**». Gaineratu digunez, «**danborrada ere berreskuratu da ortzileriarrekin**». Inauteriak gustuko ditu eta ez du mozorroa prestatzen denbora aunitz pasatzen: «**inauterietako astean hasten naiz mozorroak prestatzen. Ez dut gauza zailik egiten**». Bere mozorroak ez omen dira «**sobera ikusgarriak**», baina «**denak politak**» direla dio irribarrez. Aitzineko urteetan bezala, aurtengo mozorroa oraindik ez omen du prestatua, «**oraindik ez dakit, azken momentuan zerbait harrapatuko dut**». Eta argazki kamararen gibeletik nolakoak ote dira inauteriak? «**Arras ezberdinak**», erran digunez. «**Denak bestan ikustea eta zu ez, ez da erraza izaten. Kamara utzi eta bestan sartzeko gogoia ematen du**». Elizondon inoiz ikusi duen mozorrorik politenaz ere galde-tu diogu eta hau kontatu digu: «**haurra nintzelarik Hitlerren karroza bat egin zuten bere auto klasiko eta guzti, eta bertze urte batean Aita Saindua papamovil eta guzti. Orain dela urte bat egin zuten Gangman Stylekoa ere arras ona izan zen**». Aurtengo inauterietan bere argazki kamararen begi zorrotzarekin zer bilduko duen ikusteko dago, baina aitzinetik Elizondoko inauterietan «**ateratzen diren guztiei ongi pasatzeko**» mezua bidali die, eta zera gaineratu du: «**ongi jan, poliki edan eta giro ona izan!**».



**SOBRINO** ostatua  
Santiago - ELIZONDO 948580823  
pintxoak bokatak plater konbinatuak  
Aurrekontura egokituakoa menuak  
INAUTERIAK

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN  
**facebook**  
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Ongi pasa inauteriak !  
**GOIZALDE** ostatua  
EGUNEKO MENUA Sekulako giroa !!  
Jaime Urrutia, 8 · ELIZONDO  
Tel.948 581334

**hiru** ostatua ... betikoa baina ezberdina  
Ongi pasa inauterietan  
Bestari Berr 7,8 / ELIZONDO  
T.948 581 219

Kaxofak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hamburgesak, ensaladak, fritoaak, Etan eta destatu gure bermitatzenak!

BASTIDATIK ekarritako ARDOAK: Montebuenak, Solaguen ardo beltz odoak eta Solaguen burua  
Infusioak zapore guztiakoa  
Eskoziar eta Irlandar kafeak

**MAÑONEA AGENTZIA**  
ONGI PASA INAUTERIAK!  
mañonea\_agentzia@hotmail.com

Braulio Iriarte, 9  
ELIZONDO  
T. 948 581 132  
M. 606 896 843 - 626 494 243

**GENERALI TALDEA**

ongi pasa inauteak!

*Luxia*

ostatua · jatetxea  
948631271 · Itzea Harriña, 2 · BERRA

**BERAKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERRA

Berako udalak inauteri-aztertzak opa dirakizue!

ongi pasa inauteriak

**CENOR JAURENA**

Instalaciones **JAURENA S.L.**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDEKO ALTZARIAK  
ANTENAK

Julio Caro Baroja, 6 • 31780 BERRA  
Tel./Fax: 948 631 217  
[www.cenor.es](http://www.cenor.es)

ongi pasa inauterian!

**Oiartzabal**  
arkitektoak

Ipar karrika, 15  
31780 BERRA  
T. 948 630 304 • 627 955 349


ONGI PASA INAUTERIAK

*Garbi* *ogi & coffee*  
KAFETEGIA - OKINDEGIA

Gosariak, merenduak, gofreak, krepak,  
txokolate beroa txurroekin, izozkiak, goxokiak...

Iturlandeta, 6 · BERRA · 948 625 673

07:30-13:30 / 16:00-20:30  
Asteazken arratsaldetan itxita



**BERAKO INAUTERIAK** | Otsailak 26, 27, 28 eta martxoak 2 eta 3



**EGITARAUA**

**ILBELTZAK 26, asteazkena**  
**17:30** Inauterietako **kontzertua** kultur Etxean.

**ILBELTZAK 27, ortzeguna**  
**15:45** Ortzegun gizen. Suhiltzaileen par-  
ketik Eztegara pilotalekura. **16:30** Zeren  
Zain taldea Eztegara pilotalekuan.

**MARTXOAK 2, asteazkena**  
**10:00** etatik aitzinera goiz osoan herrian  
barna, Eztegara pilotalekutik hasita Inu-  
de eta Artzaiak. **18:00** Eztegara pilotale-  
kutik Altzatera Inude eta Artzaiak.

**MARTXOAK 3, astelehena**  
**Goizean** zingar-arraultzea **19:00-20:00**  
Afrika Lion taldearen emanaldia Altzateko  
karrikan.



**xuga**

tel. 948 631 519  
[www.xugaibera.com](http://www.xugaibera.com) | [www.facebook.com/xugaibera](http://www.facebook.com/xugaibera)



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Jantzi horia soinean, txirikordak buruan eta haurtxoa eskuan... oinak arin ibiltzen ditu Xabik.

Xabi ALZURI | Berako gaztea

## «Inude eta artzaiak gure herriko ikurra izan da eta da»

Duela hamar urte, hamasei urte bezperan bete eta lehenengoz atera zen inude eta artzaietan Xabi. Hain juxtu, Inude eta artzaiak ospatzeko ohitura berreskuratu zutenetik 25 urte bete zirenean, «nire lehenengo aldia zen eta alboan berrogeita hamar urtetik gorako jende aunitz nuen dantzan, belaunaldi desberdinetako jendeak hartu zuen parte». Momentu «berezia» izan zela aipatu digu eta agerian geratu zela «inude eta artzaiak nola izan den eta den Berako Ikurra». Gure Txokoa dantza taldeko kidea izan da eta dantzari gisara parte hartu izan du. Hala ere, «herriari irekia dagoen ekitaldia» dela azpimarratu nahi izan du, «dantza taldeko kideez gain, ongi pasa nahi duen edonork hartu dezakeelako parte». Dantzan animatzen ez direnei «konpartsan atera edo instrumenturen bat jotzeko aukera ere ematen zaie». Hain zuzen, konpartsakoak omen dira «showmanenak, momentuan inprobisatzen dute jendeari irri eginaraziz». Dantza Taldeko kideek berriz, dantza barruko erokeriak egin baina «garrantzia handia ematen diegu pausoei, ilarak ongi mantentzeari, erritmoari...» aipatu digu. Formaltasun horrek ordea, ez die egun osoan irauten, goizean txukun eta fin ibiltzen direla erran digu, baina arratsaldean, «Eztagararik abiatu eta Altzatera egiten dugun karrika buelta eta segidako dantza saioa helduentzako saio bezala definitu genezake. Barruak ardoz beteta, ilarak ere okertzen dira...».

«Eguneko besta denez, ederra da erlojuari begiratzea goizeko ordubiak direlakoan eta oraindik gaueko hamarrak izatea».

Igandeko dantza saioen ondotik, astelehenean mozarro besta ospatzen dute. «Normalean kuadrilaka biltzen gara eta hiru hilabete lehenago hasten gara karroza antolatzen». Mozorroak, denetarik ikusten dira «erosiak, etxean eginak». Hala ere, batzuetan bete betean asmatzeko ez omen da gauza gehiegi behar «oroitzen naiz orain dela urte bat edo bi, neska kuadrila batek egin zuen tandem bat. Lau lagun ziren, bizikleta bakarrarekin, ziklistaz jantzita. Jantzia ximplea zen, baina ideia bikaina». Astelehenean sortzen den giroa azpimarratzen du «urtean zehar bertze besta gehienak gauez izaten dira. Hau eguneko besta denez, ederra da erlojuari begiratzea goizeko ordubiak direlakoan eta oraindik gaueko hamarrak izatea». Inauteri gogoz dagoela nabari zaio Xabiri, ziur bestan ariko dela erlojuaren orratzak erotu arte.

ARTIEDA ESTANKOA  
Estanco Nº 3  
Cava de Puros  
www.artieda.com

Pasa (Unita 1 kg) 10,00€  
21700 Bera  
Tel: 948 631 521  
Fax: 948 631 654  
www.artieda.com

**HAUTIK!!!**  
**ORZIRUDI**  
IMPRESA - HOPISTERIA

948 631 521  
material guztien inprimatzen dugu  
hamarbatik 7 aparteko artikuluetan

**ERREKALDE**  
PLAZA KONPARTSUKOAK  
PARTSOK  
ONGI PASA INAUTERAKI

TEL: 948 630 259 BERA

**ZELAIETA**  
tabakodenda  
egunkariak, aldizkariak  
Iturandeta • BERA • 948 631 248  
ONGI PASA INAUTERIAK

**LA MASCARA**

Inauterietako mozarroetan den-dena daukagu  
Era guztietako osagarrien salmenta  
Makillaje profesionala

[www.lamascara.es](http://www.lamascara.es)  
mascara@lamascara.es  
Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

ongi pasa inauteriak!!!

**EDARIAK**

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
[www.tabernaedariak.com](http://www.tabernaedariak.com)

**IZARRA OKINDEGIA**  
ongi pasa inauterietarako!  
PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA  
TEL: 948 637 855

**ONCI PASA INAUTERIAK !!!!**  
ALXURI ELEKTROIZATEA  
INTELIGENTIA ELEKTROIKAN,  
FOTOBALIZADAK,  
KORREKIMAN,  
KOMUNIKAZIOA...  
Berritu eta LESAKA  
948637855



**IÑAKI JANARIDENDA**  
ONGI PASA INAUTERIAK  
Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287



garbiketari - limpiak  
**usi**  
ongi pasa inauterietarako

**MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK**

- Bulegoak, portalak, etxeak, kristalak, garbiketa orokorra eta eraikuntza lanetakoa
- Industria-makinekin lan egiten dugu
  - Fregatzeko makina industrialak
  - Hidrogarbitzailu industrialak
  - Hauts eta ur-kargapailu industrialak
- "Fregado en plano" delakoa
- Produktu profesionalak zabalduen azkalak, alkatrak...

T. 689 305 221 (Oihane) LESAKA

**KASINO**  
OSTATUA - RESTAURANTE



ongi pasa inauterietarako

Plaza Zaharra - 948 63 72 87  
LESAKA

# LESAKA

## LESAKAKO INAUTERIAK

Ilbeltzak 26, 27 eta martxoak 2, 3 eta 4



## EGITARAUUA

**ILBELTZAK 26, asteazkena**  
Goizean Irain Eskolan inauterietako jaialdia.

**ILBELTZAK 27, ortzeguna**  
Goizez arraultze-arraultze. Arratsaldean ikastolan inauterietako jaialdia.

**MARTXOAK 2, igandea**  
Goiz-arratsaldean Goitarrak baserri-zaberreri. 17:00ak aldera Zakozaar ttikiak. Ondoren Zakozaar haundiak. Ondoren dantzaldia plazan.

**MARTXOAK 3, astelehena**  
Goiz-arratsaldean Fraindar eta Goitarrak baserri-zaberreri. Goiz-eguerdian Orgak. Arratsaldean dantzaldia plazan.

**MARTXOAK 4, asteartea**  
Goiz-arratsaldean fraindarrak baserri-zaberreri.



**TRANSPORTES IRIGOYEN**  
629 592 215  
Burrutana auzoa, 1  
31770 LESAKA  
ONGI PASA INAUTERIAKI



# ETXALAR



## EGITARUA

### ILBELTZAK 27, ortzeguna

**Goizean** etkez etxe ibiliko dira neska-mutikoak *Ortzegun Gizen, Ortzegun Gizen, zingar-arraultze bat ez bada bertze eskatuz. 14:30etik* aurrera Landagain eskolako ikasleek beren antzezlanak eskainiko dituzte karrikaz karrika.

### MAIATZAK 2, igandea

**Zaldun Inaute** egunean ez da inauterietako aparteko ekitaldirik izaten, baina urtero bezalaxe, **kinto bestak** ospatuko dituzte.

### MAIATZAK 3, astelehena

**Astelehen Inaute** egunean herriko gazteak bi taldetan banaturik batzuk **goiko auzoetan eta bertzeak beheko auzoetan eskean** ibiliko dira egun osoan. **Ge-ro** bazkaria eta **21:00etan** pintxoak Elutsa ostatuan.

### MAIATZAK 4, asteartea

**Astearte mozorro eguna** izaten da hon-darrekoa Etxalarren. **12:00ak** aldera herriari



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

itzulia emanen zaio mozorro eta karroze-kin. **14:00etan** bazkaria. **18:00-20:30era** dantzaldia Beñatekin plazan **19:00ak al-dera** taloak jateko aukera izanen da.

**PLAZAKO**  
denda

ONGI PASA INAUTERIAK!  
ETXALAR • 948 635 026

**GORA HERRIKO INAUTEAK**

HERRIKO OKINDEGIA

Egunero irekia: 06:00 > 13:00  
Tel. 661 76 70 27

**ELUTSĀ**

OSTATUA

TABAKOAK

INAUTERI ONAK  
PASA ITZAZUE!

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

haritzpe

ONGI PASA INAUTERIAKI

Goikolanda, 8  
31760 ETXALAR  
T. 618 778 328

ETXALARKO UDALAK

INAUTERI ONAK OPIA DIZKIZUE  
ETXALARTAR ETA BISTARI GUZTIEI



**Izkiña**  
jatetxea

Ongi pasa inauteriak!


Tel. 948 514 102 - GOIZUETA

prekoak - bistarak - afinak - bokutzak - egundio menua

**Oxeguarda**  
ostatua

AUPA GOIZUETAKO  
INAUTERIAK!

T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA



**XIMON**  
HARATEGIA

INAUTERI  
ONAK PASA!!

948 514 056  
Plaza - GOIZUETA



**MAI**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK



K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242



**aniak,**  
apezetxea!

ongi  
pasa  
inauteriak!



Idoeta, 71 - 1 • 31745 GOIZUETA  
Tel.: 650 20 16 27 • 699 63 24 80  
www.apezetxeaniak.com  
excavaciones@apezetxeaniak.com

# GOIZUETA

**GOIZUETAKO INAUTERIAK** Martxoak 2, 3, 4 eta 8



## EGITARAUA

**MARTXOAK 2, igandea**  
**17:00** Gaztetxoan zahagi dantza. **18:30** dantzaldia Aierrik taldearekin. **21:30** Mozorroen afaria

**MARTXOAK 3, astelehena**  
**08:00** mozorroen irteera baserrietara. **10:00** plaza eta soziedadea apaintzea, gaia: piratak. **11:30** hamaiketako **12:00** desfilea herrian zehar. **13:00** umeen bazkaria. **14:30** helduen bazkaria. **Ondoren** umeentzako tailerrak eta "piratas del caribe" pelikularen emanaldia. **16:30** futbito txapelketa eta altxorraren bila. **18:00** merendola **18:30** mozorroen etorrera herrira, dultzaineroekin **19:00** plazan dantzaldia Aierrik taldearekin **22:00** mozorroen afaria



**MARTXOAK 4, asteartea**  
**09:00** mozorroen gosaria **10:00 mozorroak** herriko kaleetan zehar **14:00** mozorroen bazkaria **17:00** zahagi dantza, Izkiña tabernatik hasita **19:00** erromeria Gugaz taldearekin **20:00** karrozen desfilea **22:00** mozorroen afaria **23:30** erromeria Gugaz taldearekin plazan



**MARTXOAK 8, larunbata**  
**12:00** poteoa igandea txarangarekin **14:00 mozorroak bazkaria** **17:30 aldera** poteoa igandea txarangarekin Izkiña tabernatik hasita **Gauean** kontzertua gaztetxea: Skabidean eta Dj Josebita



**ZUBIMUXU ATERPEA**

Herriko plaza 10 - 31754 GOIZUETA • T. 687 238 680  
zubimuxuaterpea@hotmail.com  
www.zubimuxuaterpea.blogspot.com






GIZARTEA → ERRETIRATUAK EZ DAUDE GELDIRIK

## Herriz herriko besta eta mus txapelketetan murgilduak

Pentsioen inguruko hitzaldiek ere jubilatutako ugari erakarri dituzte

**Fernando ETXEBERRIA**

Leitzako Elkartekideak izan ziren mus txapelketako partidak jokatu zituzten lehenak. Zazpi bikote aritu ziren lehia eta Pedro Migel Barberia eta Jose Angel Azpirozek lortu zuten txapela. Eusebio Zelaieta eta Jose Mari Elizalde izan ziren bigarrenak eta Josefina Matxain eta Isabel Huizi sailkatu ziren hirugarrenak. Guztiek martxoaren 23an Hondarribian jokatu den finalean parte hartuko dute.

Ornoz-Mugairi eta Legasa inguruko bazkideak Almandozen elkartu ziren. Hauek ere mezaren ondotik, bazkaria egin zuten eta bazkalondoan batzuk dantzaldian gozatu eta besteek museko partidak jokatu zituzten.

Otsailaren 9an izan zen Eratsungo bazkideen txanda eta hauek mezaren ondotik, Barranka ostatuan elkartu eta musean aritu ziren.

### Pentsioei buruzko hitzaldiak

“Pentsioak: Egiak eta gezurrak” izenburupean hitzaldia eskaini zu-

en Patxi Urrutiak Donezteben eta Leitzan. Otsailaren 6an izan zen Doneztebeko saioa eta 32 pertsonak hartu zuten parte. Leitzakoa berriz, otsailaren 13an izan zen.

Hitzaldietan Urrutiak azpimarratu zuen gezurra diotela pentsiodunei oinarrizko igoserarik ordaintzeko dirurik ez dagoela esaten dutenean. Azaldu zuen ez dela egia bizi itxaropena luzatzeak eragin kaltegarriak dituenik. Gezur hauek zabalduz, jubilaizio plan pribatuak bul-tzatzen dira, aberatsek bakarrik ordaindu ditzaketen pentsio planak.

Gizarte Segurantzatik jasotzen den diru kopurua izaten da pentsiodunen artean banatzen dena. Horren ondorioz, superabita dagoen momentuan pentsioak igo egiten dira eta ez badago irabazirik jeitsi. Gizarte Segurantzak ordaintzen dutenen kopurua jeitsi denez, ez da pentsioan igoserarik izango eguneroko prezioek goiti egiten duten arren.

Politikoei, bankuei, militarrei, elizei, monarkiari... ordaintzeko nahi adina diru baldin badago, zergatik ez pentsiodunentzat? Berte herrialdeetan pentsio sistemak indartzeko bertzelako neurriak hartzen dira, BEZ. eta PFZAren ehuneko bat



gastu horietara bideratzea adibidez.

Egoera larri honen aurrean, eutsi egin behar da eta ez etsi. Soldada jeitsieren aurka egin eta lana sortuko duten bideak landu.

Interesatuak aukera daukate Elizondon Arizkunenean martxoaren 6an eta Beran Beralandetan martxoaren 13an, arratsaldeko 6etan eskainiko diren hitzaldietan.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA.

Goian, pentsioei buruzko hitzaldia Donezteben. Behean, Almandozen jokaturako mus txapelketako finalistak.

### Ikastaro arrakastatsuak

Arrakasta itzela izan zutela esan liteke, 182 bazkidek parte hartu zutelako antolatutako ikastaro eta tailerretan. Informatika saioa izan zen parte hartzaile kopuru handiena izan zuena. Gaiaren inguruko bilera ugari egin dira eta laster martxan jarriko dira berriro.



## EZKURRA

GIZARTEA → EGOERAK OKERRERA EGIN DU

# Maingonea arriskuan dago

Eraikina lehenbailehen bota nahi luke Udalak

**Fernando ETXEBERRIA**

Argazkian ikus litekeenez, Maingonea etxea zeharo hondatuta dago eta etxearen azpitik pasatzea beneran arriskutsua da. Guztiok ditugu gogoan bertan bizi izan ziren Kintin artzaia, bere ahots bikainarekin latinez abestutako mezak alaitzen zituena, Migel Antonio, bizkarreko minen ondorioz ia ia tolestuta ibiltzen zena, Matias, Barriola, Martin (Beltza), Juan Fermin (Motza), Alfonso, Juana eta Mati-

sa. Baina, etxearen jabeek duela urte asko alde egin zuten herritik eta gehienak hilik daude. Etxearen egoerak okerrera egin du azken urteetan eta horrekin kezkatuta eraikina lehenbailehen botatzea nahiko luke Udalak. Familiak berehala neurriak hartuko dituela jakinarazi du.

Etxea desagertzeraz doanez, bere historia berri ematea interesgarria izan liteke. 1678ko urtarrilaren 9ko dokumentu batzuetan topatu ditugu etxearen inguruko lehenengo aipamenak. Horren arabera etxearen jatorrizko izena *Marijuangonea* zen eta jabea, Migel Mikelarena. 1726ko aben-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Maingonearen lehen aipamena 1678ko dokumentu batean ageri da.

duaren 1ean berriz, *Maingorena* izena zuen etxeak eta Juan Mikelarena ageri zen bere jabetzat, ziurrenik Migelen semea izanen zen. 1725ean sortu zen Ezkurran Errosarioko Amaren Kofradia eta honen sorreran diruz lagundu zutenen zerrendan *Maingonena* ageri da etxearen izen bezala. 1865eko irailean suzeten aurkako elkarte sortu zenean, Fermin

Cestau Olagarai zen *Maingonea* etxearen jabea.

### Ezcurrako itzulia

Otsailaren 26an, asteazkenean, Ezkurra inguruan ibilaldi eder bat egiteko aukera izanen dute jubilatuek. Perralikutik abitu eta ehiztarien txaboletatik barna, Zuparrobira iritsiko dira. Basakaitz-ko maldetik jeitsiko dira segidan Eratsungo errepedeko

sarreraraino eta Ola, Errandonea eta Amokonea baserrietatik pasaz, Ezcurrako frontoira iritsiko dira. Goizeko 8:30ean abiatuko dira Barranka ostatutik eta bertan bukatuko da ibilaldia bazkari eder batekin. Indarrak berreskuratzeko babarrunak sakramentuekin eta oirlaskoa izanen dute. Interesatuak 646 548610 telefonora deituta eman behar dute izena.

## ERATSUN

GIZARTEA → OTSAILAREN 9AN

# Arkupeak elkarteko bazkideek bere eguna ospatu dute

Jose Luis Escudero eta Migel Baleztenak irabazi zuten mus txapelketa

**Fernando ETXEBERRIA**

Otsailaren 9an, Eratsungo Arkupeak Elkarteko bazkideek bere eguna ospatu zuten. Eratsunen meza aditu ondotik, Ezcurrako Barranka ostatuan elkartu ziren bazkari eder bat egiteko. Segidan, mus-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mus txapelketako hiru lehenbiziko bikoteak. Erdian, txapeldunak.

lari famatuak aurrez aurre aritu ziren lehian eta Jose Luis Escudero eta Migel Baleztenak osatutako bikotea atera zen

garaille. Finalean, Calixto Estanga eta Pedro Berazari irabazi zioten. Migel Elizalde eta Javiter Descarga hirugarren

izan ziren. Egun horretan bildu ziren Saldiasen, Beintza-Labaien eta Saldiasko bazkideak ere.

KIROLA → 2013. URTEAN

## Nafarroako kirolari onena izendatu dute Aimar Olaizola

Otsailaren 10ean eman zituen sariak Nafarroako Gobernuak

### TTIPI-TTAPA

laz egindako lehiaketa ofizialetan izandako lorpen eta kirol-jardunengatik azpimarratzekoak izan ziren kirolari, teknikari eta erakundeak saritu ditu Nafarroako Gobernuak otsailaren 10ean. Aurtentzen, honako hauek izan dira sarituak zazpi kategorietan: Aimar Olaizola Apezetxea herriko

pilotaria, gizonezko kirolari onenaren modalitatean; Carlota Ciganda eta Beatriz Recari da eta golf jokalaria emakumezko kirolari onenak; M<sup>a</sup> Ángeles Pérez Martín, kirol-teknikari onena; Eusebio Unzué, kirol-zuzendari onena; Nafarroako Igeriketa Federazioa, kirol-federazio onena; Ardoi Saskibaloiko Nafarroako Fundazioa, kirol-klub onena; eta Helvetia Anaitasuna, kirol-talde onena.

Nafarroako Gobernuak 1984. urteaz geroztik urtero banatzen ditu kirol-sariak, eta lehiaketa-kirolen sari go-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### Santa Ageda bezperan kantari

25 bat lagun atera ziren Santa Ageda bezperako kalejiran, ohiko doinuak eta kantuak eskaintzera. Hauen artean, bertotan aritu ziren Josu Garmendia, Esteban Arozena, Fernando Goia eta Juanan Lekuona, trikitixarekin Olaia eta Aizpea eta panderoa jotzen Oihane eta Janire.

renak dira. Ekitaldian izan ziren Yolanda Barcina presidentea, Pruden Indurain Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendaria eta Pedro Arozarena Kirol zuzendariorde nagusia. Barcinaren eskutik jaso zuen saria Aimarrek eta gustora ageri zen pilotaria: «Eman didaten sari garrantzitsuetako bat da»



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Pruden Indurain, Yolanda Barcina, Olaizola II eta Arozarena.

## ARANO

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 22AN

## Larunbatean ospatuko dira karnabalak

Mahai inguruko kantu saioak borobilduko du eguna

### Maider ANSA

Aurtengo karnabalak ate joka ditugu, larun-

bat honetan, otsailaren 22an izango dira. Aurtengoan ez da berrikuntza handiegirik izango, baina urteroko giro sano eta alai ziurtatuta daude. Betiko puskabiltzea eginen da Izer eta Alabierrekin, zomorro-bazkaria segidan, za-



UTZITAKO ARGAZKIA

Zomorro taldea etxez etxe ibiliko da larunbatean.

hagi-dantza gero eta herri-afaria antolatu di-

ra egun borobila osatzeko. Eta bukatzeko

mahai inguruko kantu saioa izango da.

## LEITZA

GIZARTEA → CEDERNA-GARALURREK BULTZATUTA

# Langabetuentzat topaketa eta tailerrak antolatu dira



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## Bi herritarrek pago eta haritz landareak eman dizkiote herriari

Imanol Aranburu eta Ramon Astibiak pago eta haritz landareak eman dizkiote herriari Leitzako mendietan landatzeko. Leitzalarreko haritz landareak dira batzuk, bertako haritz berezi baten ezkurak bildu eta ereinda hazi direnak. Udalak oso positiboki baloratu du bi herritar hauek egindakoa eta auzolanak antolatu ditu landareak mendian sartzeko. *Haritzak Sagarmia-Sarasain inguruetan*, haritzari laguntzeko gauzatzen ari diren lanketari bultzada emanen dio ekimenak.

Egoerari buelta emateko ideiak landu eta garatuko dituzte

### JM BARRIOLA

Eskualdean langabeziak sortzen duen kezka eta desanimoa gainditzeko asmotan, elkarlana sustatu, inguruak eskaintzen dituen aukerak aztertu, lan proiektu berrien proposamenak ikusi eta zonaldeko formakuntza indartu nahi dute. Proiektu honen helburu nagusia, langabetuen gune bat sortzea da, lan faltak eragiten duen isolamendu eta deuseztatze sententziak gainditzeko eta aukera eta irtenbide ezberdinak aztertzeke. Asmo horrekin Cerderna-Ga-

ralurrek topaketak antolatu ditu Leitzan, otsailaren 19an eta 26an. Gero, martxoan formazio tailerrak egiteko asmoa dute. Lehendabiziko formakuntza tailerra martxoaren 11, 13 eta 18an izanen da eta bertan norberaren ideiak ogibide bihurtzeko aukerak aztertuko dituzte. Bigarren tailer bat ere egingen da gaian gehiago sakonduz, apirilaren 7, 9, 11 eta 14an.

### Independentisten ekimena

Herriko Independentista sareko kideek he-

rritar batzuen artean galdeketa zabaldu dute eta otsailaren 22ra arte jasoko dituzte ekarpenak. Galdera batzuk egiten dituzte Euskal Herriko independentzia lortzeko eman beharreko urratsen inguruan. Ondoren, jasotako ekarpenak oinarri hartuta tailer bat antolatuko dute martxoan.



### Ba al zenekien

**Herritarrei aurrekontuen nondik norakoak azaldu eta egitasmoak zabaltzeko asmoz aldizkari bat banatu duela Udalak. Zalantzak argitzeko hitzordua ere jarri du, argibideak jaso nahi dituztenak bertara joatea aski dute.**



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

## Santa Ageda bezpera ospatu zuten

Otsailaren 4an urteroko moduan goizean gazte-oxoak eskean eta kantuan ibili ziren etxetxe. Arratsaldean, Kultur Taldeak antolatuta, bertso eskolako eta txistularien laguntzarekin baserrietan ibiltzeko ohitura berri zuten. Gero, 18:30ean kalejira egin zuten guztiek batera eta bukatzeko pintxoak dastatzeko aukera izan zuten karrapean.

INGURUMENA → EMAITZA ONAK DIRA TEKNIKARIEN USTEZ

Hiru hilabeteen kasik bi tona organiko konpostatu dituzte Leitzako auzo konposta guneetan

### TTIPI-TTAPA

Mendialdea Mankomunitateak hondakin inguruan egindako ikerketak agerian utzi zuen organiko eta errefuxa ez bereizteak, zabor kopuru handiak sortzen dituela. Hori konpontzeko banakako konpostagailuak banatzeaz gain, auzo konposta guneak jarri dituzte abian. Duela hiru hilabete hiru auzo konposta gune ezarri ziren Leitzan eta berriki kaleratutako datuen arabera, emaitza onak lortzen ari di-

ra teknikariaren esanetan. 58 familiak hartzen dute parte, 148 pertsonak: 13 familiak Amazabalgo gunean; 12 familiak Patxi Arrazolako gunean eta 33 familiak Areko Zubiko gunean). Momentu honetan heltze fasean daude eta Amazabaleko eta Areko Zubiko guneetan konpostagailu bana itxi dute horretarako. Martxo-Apirilera-ko heltze fasea bukatu eta konposta ateratzeko moduan egonen dela aurreikusten dute, Amazabalgoa agian bai-



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Irudian, Areko Zubiko auzo konposta gunea.

ta lehenago ere. Kalkuluen arabera, ia bi tona organiko bideratu dira konpostagailuetara hiru hilabeteen.

KULTURA → ASTEBURU HONETATIK AURRERA

## Herriko zinea berriro martxan jarriko da

Emanaldi gehienak igandetan izango dira

**Juana Mari SAIZAR**

Herriko zinea martxan jarriko da berriro asteburu honetatik aurrera. Eguberrietan ongi irten zela ikusirik printzipioz aste santuak arte izango dira emanaldiak, bi astetik behin. Igande arratsaldeetan eskainiko dira saio gehienak, Emakumearen Egunaren ingurukoa ezik, hori ostiralean eskainiko da. Orduetegiak, berriz, 16:00etan haurrentzat eta 18:00etan gazte eta helduentzat izango dira.

**OTSAILAK 23**

- 16:00 *Lotte*.
- 18:00 *Las Brujas de Zugarramurdi*.

**MARTXOAK 7**

- 17:30 *Hiru mosketa-riak*.
- 19:30 *80 egunean*.

**MARTXOAK 23**

- 16:00 *Nola Ttipi Ttipan?*.
- 18:00 *Intocable*.

**APIRILAK 6**

- 16:00 *Lapurreta ez la-purketa*.
- 18:00 *La isla de los olvidados*.

**Emazteak kantuz**

*Emazteak Kantuz* kantaldia egingo da igande honetan, otsailaren 23an, Bidarraiko



ARGAZKIAK: ENERITZ IRAOLA

### Giro ederrean joan dira inauteriak

Herriko inauteriak ederki joan ziren, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere gazteak umoretsu ibili ziren eskean eta herri afarian ere ehun bat lagun bildu ziren. Larunbat arratsaldeko antzerkia berriz oso arrakastasua izan zen. Hauek hasieran emanaldi bat egitea pentsatua bazuten ere inauterietako hau eskaini duten hirugarrena izan da jada, eta jendea guztietan oso gustura. Beraz, bejondeizuela inauteriak antolatzen aritu zareten guztioi!

Elizan. Kantaldi honen berezitasuna bertan parte hartuko duten emazte gazteek Euskal Herriko eskualde guztietara eramango gaituztela da, ia eskualde bakoitzeko ordezkaria egongo baita bertan.

Nafarroatik Jaione Olazabal herritarra ariko da kantuan eta, besteak beste, berarekin izango dira Amaren Alabak, Alaitz Telletxea edo Maixa Lizarribar. Gustua baduzue hitzordua

arratsaldeko 3:30ean izango da.

### Heriotza

Otsailaren 10ean berri txar batekin esnatu ginen Aresoar guztiak, izan ere Amaia Agirrezabal herritarrek utzi egin gintuen. Oso ukituta eta hunkituta geratu gara berri honekin, gehienbat espero gabe gertatu delako. Amaia herrian antolatzen ziren edozein ekintzatan be-

ti parte hartzeko prest egoten zen, oso langilea zen, eskatutakoan beti lagundu izan zuen edozein antolaketetan eta Guraso Elkarteko partaide aktiboa zen.

Horregatik hemendik ere gure omenaldi txikia eskaini nahi diogu, animoak familiari eta Amaiak hain gustuko zuen abestiak zioen bezala: *Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak*.

# bardoak

2014 nafarroako taldeetako bertso elkarrena



**OTSAILAK 22, LARUNBATA**  
Leitzako Atekabeltz gaztetxean  
18:00etan, bertso-merendua

<b>BETI BERANDU... TA GAUZ ONIX EZ!</b> (Leitza) Ander Fuentes "Iturri" Mikel Aspiz Migo Sagastibelza	<b>ZORTZIHO HANDIENA</b> (Lasaia) Eneko Fernandez Iban Garre Josu Sanjurjo Maddalen Lopez
---	--



www.BERTSOZALE.COM

# BAZTAN

GIZARTEA → OTSAILAREN 12TIK ZINTZILIKATUA DAGO BALLEKO ETXEAN

## Espainiako bandera paratu behar izan du Udalak borondatez kontra

Nafarroako Gobernuak arazorik ez zegoen lekuan arazoa sortu duela uste du Udalak

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak «Baztango herritarren borondatearen gainetik» udaletxean Espainiako bandera paratzeko eta ikurriña galarazteko agindua eman du. Auzibide luzearen ondotik, Nafarroako Auzitegi Nagusiak agindua beteazteko epaia eman du eta otsailaren 12tik aitzinera zintzilikatuta dago Espainiako bandera Balleko Etxeko balkoian.

Udal Gobernu taldeak adierazi duenez, «baztandarrak orain artio lasai aski ginen banderen aferarekin», normalki ez zen banderarik egoten eta egun berezietan bakarrik, Baztandarren Biltzarra egunean eta Santiago egune-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Berroko inauteriak berreskuratu zituztela hamar urte

Elizondoko Berro auzoan zenbait urtez inauteak galduak egon ondotik, gazte koadrila batek berreskuratu zituen. Larunbatean, martxoaren 1ean, elkartean bazkari eder bat eta gero dantzaldia izanen dute. Igandean, Berron eta astelehenean Antzanborda, Akullegi, Jaime-saltxu, eta Etxaide auzoetan etxez etxe soinuarekin ibiliko dira. Aurtengoan 10 urte eginen dituzte inauteak hasi zituztetik, bertze horrenbertze urtetan segi dezatela dantza, kantu eta giro ederrean, auzo horietako etxeak alaitzen.

an paratzen ziren Baztangoa, Nafarroakoa eta ikurriña, «bailaran atxekimendu gehien dutenak baitira eta bailarako sentipen orokorra adierazten baitute. Ez zegoen inongo arazorik».

Orai arazorik ez zegoen tokian Nafarroako Gobernuak arazoa sor-

tu duela uste du udal gobernu taldeak: «Garbi dago haranean nagusi den sentipenaren kontra probokazio zuzena dela eta bazterrak nahasi bertze helbururik ez dutela».

Udala derrigorturik dago Espainiako bandera paratzera eta iku-

rrina baztertzeraz eta horren ardura UPNren Nafarroako Gobernuak duela uste du udal gobernu taldeak. «Hau guztia euskaldunen identitate nazionalaren kontrako eraso da, inposizio garbia eta herri-erretatik bizi duten egoera sozioekonomikoa

### Inauteriak

#### Lekaroz

Otsailaren 28 eta martxoaren 1ean izanen dira, ortzileria eta larunbatean. Arkaitz Mindegia arituko da trikitixarekin eta beti bezala etxez etxe ibiliko dira, ortzilerian baserri eta auzoetan eta larunbatean herrian. Ortzilerian sagardotegian afalduko dute eta larunbatean herriko ostatuan.

#### Gartzain

Otsailaren 28an gazteen gosaria Fransenen eta baserrietan eskea. Arratsaldean, Etxarri eta Aixeiteko auzoetan ibiliko dira. Biharamunean, Fransenen gosaldia ondotik, herrian eta Aizanon etxez etxe ibiliko dira. Gaez aforia eta dantzaldia.

#### Almandoz

Herri afaria eginen dute otsailaren 28an, eta baserri eta etxeetan barrena ronda martxoaren 1ean Sandraren soinuarekin alaiturik.

desbideratu bertze helbururik ez duena». Inposaketaren aitzinean «gure ikurren defentsan eta herritarren borondatea eta euskal identitate nazionala errespetatuak izanen diren egoera demokratiko baten alde» lanean segituko dutela ohartarazi dute udaletik.

**ANZABAL INMOBILIARIA**



- Zuzen Auzoak, Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza Normak eta Auzoari Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alkatariak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

**Dutarimuno**  
Eko-logikoki ekologikoko arrotzak

Dufaria baserria • ARIZKUN • 616 756 359

**Gierresenea**  
OSTATU • JATETXEA

Jaki tipikoak • Etxeko giroa

Iturriotz auzoa • Tfnoa: 948 592 043  
ORONÓZ - MUGAIRI

GIZARTEA → GOBERNU TALDEAREN AGERRALDIA

# Lekarozko campusaren egoera berehala zuzentzea eskatu dute

Autokarabanen aparkalekuaren egitasmoak ez du aitzinera egin

## TTIPI-TTAPA

Baztango Udal Gobernu taldeak agerraldia egin zuen otsailaren 7an Lekarozen, «bertako empresa-campusaren inguruan gertatzen ari dena berehala zuzendu behar delako». Garbiñe Elizegi alkatearen erranetan, «Nafarroako Gobernua behin eta berriz zuzendaritzaz eta iritziz aldatu da eta enpresa publikoak suntsitzeko eta berrantolatzeke joera neurrigabea erakutsi du. Horrek guztiak ekonomia kalte larriak dakartzio Baztango Udalarari eta, anitzez larriagoa dena, baztandar guztiei».

Udal ordezkarien ustez, «Lourdes Goicoechea kontseilaria eta bere taldea ez dira Lekarozko enpresa-campusan egindako inbertsiolari irtenbide bidera-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Haziaren Eguneko lehen saioa egin zen Elizondon

Bldasoaletako eta Nafarroako Hazi Sareek eta Bidazi Elkarteak bi ekitaldi antolatu dituzte haziaren eguna ospatzeko. Lehena otsailaren 8an egin zen Elizondon.

garria emateko gai eta gainera, Baztango Udalarari bere proiektuak aitzina eraman ahalizateagalarazten diote. Udalaren proiektuek enplegua eta lanpostuak sortzen ahal dituzte eta diru publikoz ordaindu den inbertsio bat, egun deusetarako erabiltzen ez dena, erabilgarri egiten dute».

Orain arte Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean aritzearen alde agertu bada ere, aski dela erra-

teko unea ailegatu dela uste du Udalak. Horren adibidetzat paratu dute campusaren alde batean autokarabanetarako aparkalekua egiteko aurkeztutako proiektua, «gutierrez bi lanpostu sortuko zituena eta eskualdeko merkataritzari laguntzen ahal zioena». Campuserako proposatu den jarduera bakarra, ordea, ez da aitzinera aterako Nafarroako Gobernuaren erruz, «proiektua

abian paratzea galarazi baitute autokarabana aparkalekuetarako araudia prestatzeko lanean ari direla erranez».

Beraz, udalak dioenez, «ez da soilik Nafarroako Gobernuak Baztan atzendurik duela, horretaz gain udalerririk sortzen diren ekimenei trabak baizik ez dizkiela paratzen. Gobernu honen ezgaitasuna eta antolamendurik eza guztiz jasanezina zaigu».

## UDALA-GAS NAVARRA

Udal eraikinetan gas naturala paratzeko hitzarmena sinatu dute

## TTIPI-TTAPA

Gasola eta propanoa erabiltzen duten udal instalazioetan gas naturala ezartzeko elkarlan hitzarmena sinatu zuten otsailaren 11n Garbiñe Elizegi alkateak eta Miguel Andreu Lopez, Gas Navarrako zuzendariak. Udalak gas naturalaren alde egindako apustuari bat egiten du hitzarmenak, energia hau ingurumen aldeetik garbiagoa eta eraginkorragoa delakoan. Irurita Haur eskolan, hiltegian, eskolan eta udal igerilekuan dagoeneko egokitu dituzte instalazioak eta laster, Elizondoko futbol zelaian hasiko dira egokitzapen lanean. 2009 urte akabailan sartu zen gas naturala Baztanen eta urteotan 21 kilometro kanalizazio eta 400 bat hartune egin dituzte. Horiekin, Oronoz, Arraioz, Irurita, Lekaroz, Gartzain, Elizondo eta Elbetegia gas naturalarekin hornitu dituzte.

**IPARLA**  
kirolak

ttipi baztela

**%8ko**  
DESKONTUA  
30€tik gorako  
gastuan

**Composites Baztan**  
Poliesterezko lanak

Ongi pasatu  
Auzolanak

- Inpermeabilizazioak: terrazak, igerilekuak, depositoak...
- Fosa septikoak, koipe banatzaileak
- Kartuzerion erabestimenak, furgonetak, erremoietak, traktoreak
- Era guztietako molde eta pieza egiten ditugu, produktorako

Tel-Faxa: 948 581 824 | Zaldubia Industrialdea | 31730 IRURITA  
compositesbaztan@hotmail.com

# BAZTAN

GIZARTEA → BIRZIKLAPENA HOBETU ASMOZ ETA HONDAKINEN INGURUKO LEGEDIA BETETZE BIDEAN

## Baseri auzoen sarreretan paratu dituzte zaborrontziak

Oraingoz 25 edukiontzi berri

### TTIPI-TTAPA

Birziklapena hobetu asmoz eta hondakinen inguruko legedi berria betetze bidean, Baztango Udalak ere, Bortziariak eta Malerrekako Mankomunitateek bezala, zaborrontziak birkokatzea eta edukiontzi mota guztiak dauden puntuetan biltzea erabaki du.

Hobekuntza hauen barnean, Udala paperkarti, ontzi arin eta beira edukiontzi gehiago paratzen ere hasi da. Momentuz, 25 edukiontzi paratu dira.

Herri-guneetan puntu berri batzuk sortu dira falta ziren auzoetan, baina batez ere baserri-auzoetan bizi diren bizilagunei hurbildu nahi izan dizkiete birziklatzeko edukiontziak. Hori dela eta, baserri auzoen sarreretan puntu berriak sortu dira.

Puntu berriak Otsondo gaineko merenderoan, Azpilkuetako Arribil-



ARGAZKIA: MIREN ITXASO ARRETXEAK UTZIA

### Bi asteburuko inauteriak Berroetan eta Anizen

Nahiz eta eguraldiak ez dien aunitzik lagundu giro ederrean joan dira aurten goan ere Berroeta eta Anizko inauteriak. Urtarrilaren 18an aniztarrek berroetarren bisita jaso zuten eta Anizen barna ibili ziren etxez-etxe. Hurrengo asteburuan berriz, urtarrilaren 24 eta 25ean bisita bueltatu zuten aniztarrek. Ortziralean baserri baserri ibili ziren eta larunbatean Berroetako herrian barna puskak biltzen. Gazte koadrila bildu zen eta oso giro ona jarri zuten herrian barna!!

toa eta Apaioa auzoetan, Urrasunen, Bergarako merenderoan, Lekarozko Uharte auzoan, Almandozko San Pedro karrikan, Askapeko harrobian, Elizondoko Antzanbordako bidegurutzean, Lanbide Es-

kolan eta Xalbador karrikan eta Izpegiko kaxkoan sortu dira. Bertalde, zenbait kasutan edukiontziaren puntua de-

sagertu da herritarrek edo alkateek honela eskatu dutelako edota kontenedoreak arrasakabanatuak zeudelako.



### Pertsonaia

Xabier IBARGARAI

### Palan Munduko azpitxapeldun

Erratzuarrak ez zuen ezustekoa ematerik izan eta galdu egin zuen otsailaren 8an Pablo Fusto argentinarraren kontra jokaturako buruz buruko Munduko pala txapelketaren finala. Finala galdu arren, Ibargaraik Munduko txapelketa bikaina jokatu du. Aierbe eta Lujan kanporatuta finalerdietarako ligaxkarako sailkatu zen. Finalerdietako lehen partidari irabazi egin zion Gaubekari, Fustorekin galdu eta azkenekoan irabazi Garciari. 28 urterekin (6 profesionaletan), txapelketa ofizial baten finalean izan da lehen aldiz. Eta finalak irabazteko, jokatu egin behar dira lehenik.

Martiko  
Pol Zalea, s/n.  
31780 Ibañeta, Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
*Abastetza edozein eta orotan*

**DENDA ORDUTEGIA:**  
astelehenetik  
ortziralera  
08:00etatik  
17:00etara



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

### Santa Ageda bezperan kantari atera ziren ikastolakoak

Santa Ageda bezpera ospatu zuten Baztan ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek. Elizondon, makila eskuetan zirela atera ziren karrikaz karrika kantari.



## ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → OTSAILAREN 9AN

# Goya sarien banaketan izan ziren alkatea eta museoko gerentea

Hainbat sari eskuratu zituen 'Zugarramurdiko sorginak' filmak

**Margari eta Koro**

Duela urte bete pasatu grabatu zuen Alex De La Iglesiak 'Zugarramurdiko Sorginak' pelikula, baina azken egun hauetan berriro ere aipagai dugu.

Gan den otsailaren 9an ospatu zen Madrilén Goya sarien banaketa, eta hartara konbi-

datuak izan ziren Laxaro Dainziart alkatea eta Ainhoa Agirre museoko gerentea. Nahiz eta toki eta giro arrotza izan, ez ziren batere lekuz kanpo sentitu: Zugarramurdiko errodaia egunetan, harreman estua egin zuten teknikari batzuekin, eta haiek ere sari banaketan zeudenez, elkarrekin arras gustura egon omen ziren. Gainera, teknikari horietako batzuk sari-tuak izan ziren.

Oraindik pelikula ikusi gabe duzuenentzat, jakin argumentuak ez



UTZITAKO ARGAZKIA

Sarritua izan zen Terele Pavez aktoreakin ikusten ditugu Laxaro eta Ainhoa. Zugarramurdiko rodajearen artean, Terele izan zen harreman hurbilena erakutsi zuen pertsona.

duela deus ikustekorik Zugarramurdin gertatutakoarekin. Batez ere pelikula makabro-komika bat da, Alex De La Iglesiak egiten dituen pelikula «berezi» horietako bat. Horrek dakarrenarekin, batzuei izigarri gustatzen zaie eta bertze batzuei berri batere ez (normale-

an tarteko iritzirik ez da izaten).

Diotenez, pelikula hunen ondorioz, jende gehiago etorriko da herrira. Hala bada, duela 400 urte gure egiazko sorginekin gertatu zen injustizia jakinarazteko baliatuko dugu, museoa arras ongi ikusten baita orduan gertatua.

### Barnekiak zikloak azken saioa

Barnekiak zikloak azken sarioa izanen da otsailaren 22an, larunbatean 19:00etan Museo Antzokian. Boleto Còsmic, Kataluniatik ekarritako emankizun berezia izanen da, trikitixa, musika eta irudiak uztartzen dituen.

## URDAZUBI

GIZARTEA → EMAKUME TALDEA LANEAN GOGOTSU

# Egitasmo berriak gauzatu nahi ditu Ugaranak

Sagardotegian afaria eginen dute martxoaren 7an

**TTIPI-TTAPA**

Ugarana Emakume Elkarteak bere urteurrena ospatu zuen 2013ko abenduaren 13an, horretarako urtero egiten den Santa Lutziko afa-

ria profitatuz. Lehenik zendutako emakume jostunen oroimenez meza ospatu zen Zugarramurdiko elizan, eta gero 26 emakume elkartu ziren afarian. Emakume jostunen bultzada garrantzitsua izan zen elkartearen sorreran.

Aurten bultzada berria eman nahi diote elkarteari, horretarako barne organuen berri-



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakumeak Ugaranak antolatutako Santa Lutzia afarian.

tzea eta proiektu berriak jarri nahi dituzte martxan. Horrela ba, laster ekimen berriak jarriko dituzte abian. Hurrengo martxoaren 7an izanen da (biharamune-

an Emakume Langilearen Eguna baita), Petritegi Sagardotegian eginen duten afaria, eta animatu nahi dituzte esku-aldeko emakumeak.

Elkarteko bazkide

egin, ekimenetan parte hartu edota informazio gehiago jaso nahi duenak Anaxtaxi Taberna eta Dendara jo behar du (Tel.: 948 599027 - [info@casamonasterio.es](mailto:info@casamonasterio.es)).

# SARA

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 1 ETA 2AN

## Sarako kantariak sorpresa bat prestatuko dute inauterietako igande eguerdian

Ondotik hiru eskolek antolatutako bazkaria egingen da

### Joana GERENDIAIN

Aurten ihauteriak martxoaren 1 eta 2 an ospatuko dira. Usaian bezala larunbatarekin herriko gazteak etxez etxe ibiliko dira auzoak alaitzen kantu eta dantzekin. Igandean plazan dantzak eta Zanpan-

tzarren auzia egingen dira eta Sarako kantariak sorpresa bat prestatuko dute. Ondotik, eguerdi eterdi aldean hiru eskolek antolatutako bazkaria izanen da Lur Berri gelan. Helduentzat 13 euro eta haurrentzat 6 euro. Txartelak salgai daude Herriko Etxeko edantegian, Baketun, Keinun eta Pleka trinketean.

### Bertso afaria ihiztarien etxean

Heldu den otsailaren



ARGAZKIA: GANEX JAIBERRI

Usaian bezala, larunbatean herriko gazteak etxez etxe ibiliko dira auzoak alaitzen kantu eta dantzekin eta igandean plazan egingen dituzte dantzak eta San Pantzarren auzia.

28an, ortziral gauarekin, bertso afari bat egingen da Sokobian, ihiztarien etxean Lizarietako lepoan. Gaualdia 8etan hasiko da, Odei Barroso eta Amets Arzallusek animatuko dute gaua. Izena emaitako 06.58.51.94.36 edo 06.21.34.16.85 zenbakietara deitu behar da, otsailaren 24 a baino le-

hen. Kasu, bakarrik 60 bat leku izanen baitira. Afariaren prezioa 22 eurokoa da eta gaualdian bilduko den dirua presoiei emanen zaie.

### Kirol emaitzak

Otsailaren 8 eta 9 ko asteburuan esku baloian, 11 urtez azpikoek galdu dute Kanboren kontra 20-11, 13 urtez

azpikoek 20-17 galdu dute Lasseube-ren kontra, 15 urte azpikoek irabazi dute 19-11 Irisarriren kontra eta 18 urte azpikoek irabazi dute 23-15 Kanboren kontra.

Asteburu berdinean Basurdeak Pouillonari ziren eta bi ekipek irabazi egin zuten; erreserbak 13-10 eta lehenak 20-17.



ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458



## Pakita SANZBERRO ELIZALDE

II. URTEURRENA

Etxalarren, 2012ko otsailaren 23an

*Betirako gure bihotzetan*

BERE FAMILIA



**Martutzak**  
ZURE OSPAKIZUNETARAKO  
BEHAR DUZUN GUZTIA

- Soinekoak
- Berako apaingarriak
- Poltzak
- Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA  
948 631 425

## EZKONTZAK

**Ez dago datu berririk.**

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



**kukuka**  
MODA  
PREZIO  
ERDIAN

Zarigorriate, 1 • DONEZTIBE • 948 450 252

## SORTZEAK

**Nahia Mutuberria Urreaga**, Doneztebekoa, otsailaren 1ean.  
**Amane Urrutia**, Sarakoa, urtarrilaren 25ean.  
**Luxi Garcia Grillard**, Sarakoa, otsailaren 1ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Sor Francisca Telletxea Agirre**, Elizondon, urtarrilaren 29an, 89 urte.  
**Miguel Mariezkurrena Iraizoz**, Eratsungoa, urtarrilaren 30ean, 90 urte.  
**Martin Mitxeo Baleztena**, Saldiaskoa, otsailaren 1ean, 83 urte.  
**Victoria Eltzaurdia Altzuguren**, Berakoa, otsailaren 3an, 96 urte.  
**Jose Dagerre Martinez**, Berakoa, otsailaren 3an, 80 urte.  
**Anunciación Azpiroz Aleman**, Zigaikoa, otsailaren 4an, 90 urte.  
**Juxta Saldias Saldias**, Arraiozkoa, otsailaren 4an, 85 urte.  
**Maria Rogelia Mariezkurrena Senosiain**, Amaiurkoa, otsailaren 6an, 86 urte.  
**Jose Ignacio Telletxea Irueta**, Donamariakoa, urtarrilaren 28an, 85 urte.  
**Bittori Olaetxea Gue**, Lesakakoa, urtarrilaren 30ean, 83 urte.  
**Pedro Deskarga Elizalde**, Eratsungoa, otsailaren 10ean, 72 urte.  
**Amaia Agirrezabal Aristi**, Areson, otsailaren 10ean, 46 urte.  
**Sofia Leranoz Ezkurdia**, Elizondon, otsailaren 11n, 97 urte.  
**Thérèse Telletxea**, Sarakoa, otsailaren 1ean, 93 urte.  
**Mertxe Perurena Apezetxea**, Goizuetakoa, otsailaren 12an, 89 urte.



### Bittoriano URROZ SALDIAS

Narbarten, 2014ko urtarrilaren 14an

*Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztuxin horiek beti geldituko dira gurekin.*

#### ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zaretan eta gure saminarekin bat egin duzun guztiei, mila esker.



*Zuen urtebetetzetan bota zaituztegu faltan, Irisoko bazkaritan zate gure bihotzetan.*

*Zuen indar ta irriak, zuen ontasun guziak betetzen ttigu biziak ta erakusten biditak.*

*Adio kide maiteak, zinez guraso onenak senide paregabeak ta lagun ezin hobekak.*

**Joxe Mari ETXEPARE IRISARRI**  
«Attitta»  
1948-02-25/2013-02-11 (I. URTEURRENA)

**Maritxu BABAZE JUANIKORENA**  
1955-02-25/2012-03-17 (II. URTEURRENA)

**SEKULA AHAZTUKO EZ DIZUETEN ZUEN FAMILIAK**

**TXIRRINDULARITZA** → HIRUGARREN DENBORALDIA EGINEN DU

# Transbidasoa-Euromaster beterano mailako taldea aurkeztu dute Igantzín

lazko talde beretsua izanen dute

**TTIPI-TTAPA**

Master mailako Transbidasoa-Euromaster txirrindularitza taldearen aurkezpen ekitaldia egin zen Igantzín otsailaren 1ean. Hau taldearen hirugarren denboraldia izanen da, 2012an sortu ondotik. Joan den urteko txirrindulari berak izanen dira taldean: Igantzín Xabi Aranguren eta Mikel Arburua, Irurritako Iñaki Villoria, Urduñako Txutxin Fernandez, Funesko Riki Martinez, Lesakako Luziano Mitxelena eta Joxe Angel Mitxelena, Elizondoko Ion Zeberio eta Beteluko Jabi Urriaga eta Ibon Urriaga anaiak.

Bi urte hauetan mas-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Master mailako txirrindulari taldea errepideratuko da aurten ere.

ter60 mailako Espainiako txapelketa, Euskal Herriko eta Nafarroako txapel aunitz, hiru lasterketa garaipen, hogei podium baino gehiago, mailakako ehun garaipen baino gehiago, mailakako podium aunitz, mendiko sailkapenean edota tarteko helmuge-

tan garaipen ugari eta taldekako garaipen batzuk ere lortu dituzte.

Hala ere emaitzen gainetik bizikletaren inguruan bitzako esperientziak eta bizipenak izan dira garrantzitsuenak. Guzti hori bizi ahal izateko babesle eta laguntzaileen parte har-

tzea ezinbertzekoa izan da.

Aurkezpen ekitaldian Inurrieta Bodegen komertziala den Felipe Lizardi izan zen bere artean. Taldearen babesle diren bi enpresen ordezkariak ere han ziren, Transbidasoako Javier Garcia presidentea eta

Euromaster enpresako gerentea den Agustín Mendez. Pertsona eta enpresa hauen laguntza ezinbertzekoa da proiektua aitzinera ateratzeko eta horregatik esker oneko hitzak bertzerik ez dituzte taldeko partaideek eta arduradunek.

2014 urteari begira urteroko helburu berak izanen ditu taldeak, froga bakoitzean mailarik onena ematea eta podiumera igotzen saiatzea; geroz eta zailagoa da podiuma zapaltzea, baina horrek ez ditu beldurtuko Transbidasoa-Euromaster taldeko txirrindulariak. Garaipenak lanaren fruitu izanen dira eta iritsiko dira iritsi behar badute behintzat, bestela lasterketetan gozatu eta istripurik ez izatea izanen da garrantzitsua.

**TXIRRINDULARITZA** → MASTER60 MAILAN LORTU DU GARAIPENA

## Luziano Mitxelena Euskal Herriko txapeldun suertatu da

Ion Zeberio elizondarra azpitxapeldun izan zen senior30 kategorian

**TTIPI-TTAPA**

Euskal Herriko master mailako txirrindularitza txapelketa jokatu zen otsailaren 8an Ar-

ztziniagan (Araba). Transbidasoa-Euromaster-Inurrieta taldeko Luziano Mitxelena lesakarrak master60 mailan txapela lortu zuen eta Ion Zeberio elizondarra master30 mailan azpitxapeldun izan zen, lasterketan 5. postua lortuz.

140 txirrindulari inguru atera ziren eta Vallejo izan zen Euskal Herriko txapeldun, Teo Cabal eta Heviaren

aitzinetik. Minutu erdira Ion Zeberio helmugaratu zen 5. postuan; master30 mailako txapelketan bigarren postua lortuz. Bigarren trofeo batean helmugaratu ziren Ibon Urriaga eta Txutxin Fernandez; hauen gibeletik iritsi ziren Jabi Urriaga eta Luziano Mitxelena. Azken honen master60 mailan Euskal Herriko txapelketa lortu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Luziano Mitxelena eta Ion Zeberio, Artziniagan.

KIROLA → DONEZTEBEN TALDE BERRIA

# 42 kirolari bildu ditu Errekak sortutako triatloi taldeak



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Errekako triatloi taldearen aurkezpena egin zuten otsailaren 2an Doneztebeko Kasinoan.

24 federatuak dira eta 18 federatu gabeak

da, inoiz espero ez genuen erantzuna izan dugula, 42 kirolariko taldea osatu baitugu».

24 kirolari federatu eta bertze 18 ez federatu izanen dira oraingoz taldean, «baina noski, ateak denendako zabalik daude» Kirolari horien artean, gisa guzietakoak dituzte, lehenagotik triatloian ibilitakoak, atletismotik datozenak, bizikletatik, mendi bizikletatik...

Orokorrean taldearen helburua Euskadiko eta Nafarroako probetan parte hartzea izanen da, duatloi eta triatloietan... «Taldea berria denez, hori izanen da helburua, parte hartze horiekin taldea beste ur-

teetarako sendotzea» dio Bidegainek.

Kirolari bakoitzak bere helburu partikularrak ere baditu, «hala batzuk duatloietan parte hartzea dute helburu, bertze batzuk triatloi olimpietan, eta bakarren batek, iron man batean...». Horiei guztiei eta ondotik etorri nahi dutenei babes emanen die Errekako Triatloi sekzioak. Norbaitek oraindik Errekaren triatloi taldean parte hartu nahi balu, [errekatriatlon@gmail.com](mailto:errekatriatlon@gmail.com) helbidera mezua igorri dezala.

## TTIPI-TTAPA

Otsailaren 2an aurkeztu dute Doneztebeko Kasino elkartearen Erreka elkartearen triatloi sekzio berria. Gorka Bidegain taldekideak aipatu digunez, «duela urte pare bat, triatloia kanpoan egiten genuen doneztebar batzuei, Errekan triatloiko sekzio bat egiteko gogoaz piztu zitzaigun, hala, joan den urtean hasi ginen hori gauzatzeko lehendabizko bilerak egiten. Eta erran beharra


## BULTZATZAILE NAGUSIAREN IRITZIA

Gorka BIDEGAIN | ERREKA TRIATLOI TALDEA

### «Erronkak taldekideekin partekatzea aberasgarria da»

Triatloia kirol indibiduala den arren, entrenamenduak eta erronkak taldekideekin partekatzea oso aberasgarria dela uste du Gorka Bidegainek. «Afizio eta motibazio antzekoak dituzten pertsonak elkartzea ekartzen du gurea bezalako talde batek». Lehendik bizikletan ibili zen eta duela 3 urte hasi zen triatloian lehiatzen.

«Iron man bat egiteko asmoarekin hasi nintzen, eta 2013an Roth-ekoa (Alemania) egin nuen. Esperientzia ikaragarria izan zen, izan ere, bertako antolakuntza, bertako giroa, bizi beharrekoa dela ikusi nuen bertan», dio.



## ERREKA TRIATLOI TALDEA

Gorka BIDEGAIN	DONEZTEBE	BAI
Xabi BANARES	DONEZTEBE	BAI
Ugaitz GARDE	GARTZAIN	BAI
Alfredo TELLETXEA	DONEZTEBE	BAI
Patxi URTXEGI	NARBARTE	EZ
Mikel BERTIZ	DONEZTEBE	BAI
Iñigo MANGADO	DONEZTEBE	BAI
Josu JUANENA	DONEZTEBE	EZ
Txibi UTERGA	DONEZTEBE	EZ
Jokin APEZETXEA	DONEZTEBE	BAI
Andoni BLAS	DONEZTEBE	EZ
Maialen ZAMORANO	DONEZTEBE	BAI
Fermintxo OTEIZA	NARBARTE	EZ
Mikel TELLETXEA	DONEZTEBE	BAI
Txemo GARZIARENA	ELGORRIAGA	EZ
Miren MANGADO	DONEZTEBE	BAI
Inigo ARREGI	DONEZTEBE	BAI
Santi SAN MIGUEL	DONEZTEBE	BAI
Alberto BARBERENA	LEKAROZ	BAI
Inigo ETXEBERRIA	ELGORRIAGA	EZ
Ibai ORDAX	DONEZTEBE	EZ
Inigo OSTIZ	DONEZTEBE	EZ
Julen LIZARTZA	ARIZKUN	BAI
Iker MARIEZKURRENA	SUNBILLA	EZ
Jon MARITXALAR	SUNBILLA	BAI
Unai PLAZA	LEKAROZ	BAI
Javier MAGANA	BURLADA	BAI
Liborio ARIZTIA	DONEZTEBE	EZ
Aritz BALEZTENA	DONEZTEBE	BAI
Jon OSKARITZ	ARIZKUN	BAI
Igor AGESTA	SUNBILLA	EZ
Iñaki TELLETXEA	ELIZONDO	BAI
Samuel MERAYO	ELIZONDO	BAI
Iñigo LASAGA	DONEZTEBE	EZ
Izaskun ETXEBERRIA	OIARTZUN	EZ
Martintxo OTXANDORENA	ELGORRIAGA	EZ
Bixente IBARRA	SUNBILLA	EZ
Endika EUGI	ELIZONDO	BAI
Imanol OTERO	ELIZONDO	EZ
Rafa MARITXALAR	MUGAIRI	BAI
Javier CANDAL	BILBO	BAI
Sergio MORATE	BERA	EZ

## otsailak 20 - martxoak 6

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Ospakizunak



BERA | 2014.02.22

**Bertako Haziaren Jaia  
Elizondotik Berara**

Modu bikoitzean ospatuko dute Bertako Haziaren Jaia: hilaren 8an Elizondon egin zuten eta 22-an Beran egingen dute. 11:00etan hasita haziak trukatu dituzte.

## Bertsoak



LEITZA | 2014.02.22

**Bardoak ekimeneko saioa  
Leitzako gaztetxean**

Lehen faseko azken aurreko saioa jokatu da Atekabeltz gaztetxean *Beti berandu... ta gauz onik ez!* eta *Zortziko haundiena* taldearen artean. 18:00etan hasiko da.

## Kontzertuak



ELIZONDO | 2014.02.23

**Napoka Iriaren kontzertua  
Arizkunenean**

2005ean elkartu zirenetik Miren Narbaiza eta Ander Mujika jo eta jo dabilta han eta hemen kontzertuak eskainiz. Igande honean Elizondon izanen dira.

Otsailaren 21 eta 22an.

ELBETE

**Etxez etxeko eskea**

Otsailaren 22an.

BEINTZA-LABAIEN

**Etxez etxeko eskea**

Otsailaren 22an.

ARANO

**Puska biltzea, zomorro  
bazkaria eta gehiago**

Otsailaren 22an.

ALMANDOZ

**Etxez etxeko eskea**Otsailaren 28an eta  
martxoaren 1ean.

SARA

**Eskea eta zanpantzarra**

Martxoaren 1 eta 2an.

URDAZUBI

**Etxez etxeko eskea**

Martxoaren 2tik 4ra.

GARTZAIN

**Etxez etxeko eskea**Otsailaren 28an eta  
martxoaren 1ean.

ZUGARRAMURDI

**Etxez etxeko eskea**

Martxoaren 1 eta 2an.

LEKAROZ

**Etxez etxeko eskea**Otsailaren 28an eta  
martxoaren 1ean.

LESAKA

**Zaku-zaharrak**Otsailaren 27an eta  
martxoaren 2 eta 3an.

BERA

**Inude eta artzainak**Otsailaren 27 eta  
martxoaren 2 eta 3an.

GOIZUETA

**Puska biltzea eta zahagi  
dantza**

Martxoaren 2tik 4ra.

## Solasaldiak

ORONOZ-MUGAIRI

**'Aitatxi eta amatxi:  
papera eta ardurak'**Otsailaren 20an batzar  
gelan, 17:00etan.

ELIZONDO

**Pentsioen inguruan**Martxoaren 6an Ariz -  
kunenean 18:00etan.

BERA

**Pentsioen inguruan**Martxoaren 13an Be-  
relandetan 18:00etan.

## Tailerrak

ELIZONDO

**Inauterietako tailerra**Otsailaren 22an kapelu  
eta mozorroak egiteko.

LEITZA

**Eski ikastaroa**Otsailaren 22an Som-  
porten eski ikastaroa.

## Ipuin-kontalariak

BERA

**Oihana Etxegibeekin**Otsailaren 21ean *Hai-  
zeak kontatutakoak*  
liburutegian, 18:00etan.

## Ikuskizunak

ZUGARRAMURDI

## Kataluniatik ikuskizuna

Otsailaren 22an Bolet

Còsmic ikuskizuna  
19:00etan Museon.

## Bertsoak

LEITZA

**Bardoak ekimena**Otsailaren 22an *Beti  
berandu... ta gauz onik  
ez!* eta *Zortziko haun-  
diena* taldeak gazte-  
txean, 18:00etan.

DONEZTEBE

**Bertso bazkaria**

Otsailaren 22an Ekai-

tza ostatuan, Amets  
Arzallus eta Jon Maia.

SARA

**Bertso afaria**Otsailaren 28an Amets  
Arzallus eta Odei Barro-  
so Ehiztarien Etxean.

## Kontzertuak

ELIZONDO

**Napoka iriaren saioa**Otsailaren 23an Ariz-  
kunenean, 17:00etan.

BERA

**Musika Eskolakoen  
kontzertua**Otsailaren 26an 17:30 -  
ean Kultur Etxean.

## Ospakizunak

BERA

**Bertako Haziaren Jaia**Otsailaren 22an goize-  
an hazi trukaketa, ezta-  
baida, bazkaria...

## Inauteriak

ZIGA

**Etxez etxeko eskea**

Otsailaren 21 eta 22an

IGANTZI

**Etxez etxeko eskea**

## PROPOSAMENA

INAUTERIAK

**Mozorro bestak  
segida izanen du**

Herri batzuetan ospatu berria eta gainerakoe-  
tan ate joka. Halaxe di-  
tugu inauteriak. Data  
ofizialetan izaten diren  
inauteriek hartuko dute  
lekukoa otsailaren 27tik  
martxoaren 4ra. Han  
eta hemen, puxka bil-  
tzeak izanen dira, karro-  
zak ikusgai ere bai... Eta  
herri bakoitzean inaute-  
rietako pertsonaiak ere  
aterako dira: zaku za-  
harrak, damak, inude  
eta artzainak...



ETXALAR

**Eskea eta karrozak**  
Otsailaren 27 eta martxoaren 2tik 4ra.

ELIZONDO

**Orakunde, mozorro desfileak...**  
Otsailaren 27tik martxoaren 1era.

DONEZTEBE

**Karroza ikusgarriak**  
Otsailaren 27tik martxoaren 1era.

**Filmak**

LEITZA

**Asteburuko zinemako hitzorduak**

**Otsailaren 21 eta 23an**  
*El último Elvis* ikusgai.  
Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

DONEZTEBE

**Bi film aukeran**

**Martxoaren 2an** *Munduaren bila doan* (16:30) eta *Zipi Zape* (18:30).

ARESO

**Zinema abian**

**Otsailaren 23an** *Lotte* (16:30) eta *Las Brujas de Zugarramurdi* (18:30).  
**Martxoaren 7an** *Hiru mosketariak* (17:30) eta *80 egunean* (19:30).

**Mendi irteerak**

BAZTAN

**Baztango**

**Mendigoizaleen irteerak**

**Otsailaren 23an**  
Dolmenen ibilbidea, 08:00etan Berroetatik abiatuta.

**Martxoaren 9an**  
Oronoztik 08:00etan abiatuta Aizkolegira.

EZKURRA

**Jubilatuena ateraldia**

**Otsailaren 26an**  
Ezkurrako itzulua, 08:30ean Barranka ostatutik abiatuta.

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



Xume. Laboa Zumetarenean

JOSE LUIZ ZUMETA

Elkar, 2013

Jose Luis Zumeta liburu batekin datorkigu Laboaz mintzatzen, tonu intimo batean, adierazpen isilean. Liburuaren jatorria Mikel Laboa Katedrak egin berri dituen lehen jardunaldietan dago. Mikel Laboa bera gaitzat hartuta, harekin urteetan harreman artistiko estua izan zuten lekuko batzuek era aunitzetako testigantzak eskaini dizkigute, hala hitzezkoak nola musika bidezkoak. Erakusketa bat ere jarri da Koldo Mitxelena Ganbaran, Mikel Laboaren ibilbide artistikoaren ikuspegi bat eskaintzeko. Eta, ibilbide horretan, jakina, Jose Luis Zumeta etengabe ageri da. Jardunaldietan eta erakusketan, hantxe izan dugu Zumeta, baina ez digu hitzaldirik eskaini. Berak dioenez, irudien bidez mintzo da. Eta, hitzaldi baten ordean, irudi bidezko lekukotza bat bidali digu. Lekukotza hori eskaintzen du *Xume, Laboa Zumetarenean* liburuak. Mikel Laboaren irudiaren barietate piktoriko xume eta sentikorrek Mikelek kantatu zituen poetekin batera datoz.

**Musika**



Bizirik

ANTTON ARANBURU

Elkar, 2013

Antton Aranbururen bigarren diskoa da *Bizirik*, 11 kantaz osatua. Mezu baikor eta sozialekin zipritindua da, estilo aldetik anitza eta musikari trebeekin laguntzarekin grabatua: Raül Vera (gitarra), Asier Yarza (baxua), Iker Uriarte (bateria), Josu Jungitu (teklatuak) eta Sonia Vera (koruak). Lan berri honetan bizitzari kantatu dio eta etxeko grabazioetan orduak pasatu ondoren sortua da. Bere melodien bitartez bidaia bat proposatzen digu mundu osoan zehar *Unibertsora Bisita* kantan; progresoaren inguruan hausnartzera dei egiten du oihan afrikar baten sakontasunetik *Oihanean Bildu Diran*; buruak astinduz adiskidantza ospatzera gonbidatzen gaitu Kuba heavy-enetik *Jon Karlarenean* eta azkenik etxera lasai-lasai bizikletaz itzultzeko proposamena luzatzen du *Gasteiz Esnatzen Ari Dan*. Gozoki musikalizatzen du Mario Benedettiren *Taktika eta Estrategia* poema eta migrazioak dakartza gogora *Kolore Anitzak* kantan.

**Internet**



Euskal Herriko atlas berria

ATLASA.NET

Euskal Herriko atlas berria martxan da, Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartuta, Gai-degiak euskal lurraldeen ezagutza sustatzeko asmoz egin duen tresna multimediala, errealitate ekonomiko eta sozialaren berri ematen duena. Lau multzo nagusitan bereizi dituzte datuak: demografia, ekonomia, gizarte eta ingurua. Familia bakoitza, berriz, lurralde unitate desberdinetarako dago ikusgarri: udalerrri, eskualde, herrialde eta Europa mailan. Datuak estatistika iturri ofizialetatik eratorritakoak dira. Biztanleria, dentsitatea, ekintzailetasun industrialia, barne produktu gordina, emakumezkoen langabezia tasa erregistratua, etxebizitza kopurua, artifizializatutako lur-azalera... Horiek dira, bertzeak bertze, eskura dauden datuak. Datuak bistartzeko garaian, baliabide grafikoaren artean daude lurraldearen gaineko datuen erreprezentazioa mapa kromatikoen bitartez, denbora leerroak, barra diagramak, konparaketa taulak...

**Nire aukera**



Jose Manuel MUÑOZ Aranoarra

**«Bidaia gustuko dut baina ez oso urrutira eta ez oso luzarorako ere»**

Sorrez donostiarra, baina bihotzez aranoarra. Halaxe da Joxemi. «Bestelako bizimodu bat» probatu nahi zutelako jozuten Aranora orain 20 urte baino gehiago: «beti natura eta mendietan lotura izan dugu eta gehienbat horregatik aukeratu genuen Arano. Pisu batean bizitzea zer zen bagenekien eta bestelako etxebizitza batean bizitzea probatu nahi genuen». Bai gustatu ere. Arano paraje «asko» omen ditu gustuko baina bi aukeratu ditu, Mandoegiko punta eta Burniko zabala: «Mandoegiko tontorrek askatasun sentsazioa ematen du, ikuspegi polita eta zabalak dauzka. Eta bestetik, hemen zabalak harrapatzea ez da erraza eta Burnin zabal ditore bat dago». Asti librean «umeekin ibili, baratzetan ari, mendira joan eta zakurrarekin ibiltzea» ditu gogoko. Baina orain badu beste egiteko bat ere: «bateria jotzen ikasten hasi naiz». Bidaia ere bai, baina «ez oso urrutira eta ez oso luzarorako ere. Herrimina segituan sartzen zait». Argi dago, itsasoan jaio arren, mendia maite du eta ez da Aranotik urrutitu joan.

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORONOZ-MUGAIRI.**

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/100.000 €. ☎948 585036.

**ANZABAL**

INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

**IGANTZI.** Allinea etxea salgai eta ostatua eta jabetxea salgai edo errentan emateko. ☎626 429475/620 682406.

**DONEZTEBE.** 2 logelako pisua salgai. 15m<sup>2</sup>ko trastelekua. 120.000 euro. ☎630 160353.

**ERATSUN.** Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**BERA.** Etxebizitza atxikia salgai. 200m<sup>2</sup>. 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m<sup>2</sup>) eta lorategia (75m<sup>2</sup>). 3 autorentzako aparkalekua. Prezio negoziagarria. ☎636880115 (19:00etatik aurrera).

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

**BERA.** Agerra auzoan pisua errentan emateko.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

Mobleztatua. Hiru logela, kalefakzioa eta igogailua. 420 euro. ☎659 963960.

**ORONOZ-MUGAIRI.** Pisu errentan emateko. 3. solairua, berria eta oso alai. Egongela-sukalde ederra, logela bat, komuna, trastelekua, garajea, berogailu instalazioa eta igogailua. Igerilekua, padeleko zelaia eta frontoi komunitarioa. Errenta 380 euro. ☎661 898970.

**BERA.** Altzateko Plazan pisua errentan emateko. Igogailuarekin, hiru logela, egongela, sukalde zabala eta berogailua. Guztiz ekipatua. ☎665 716126/ 685 727560.

**BERTIZARANA.** Baserria errentan emateko. ☎678 957094.

**DONEZTEBE.** Pisua errentan emateko. Igogailu eta berogailuarekin. ☎678 633562.

**LESAKA.** Pertsona bakkarrarentzako apartamentua errentan emateko. ☎678 855056.

**LEGASA.** Hiru logelako pisu mobleztatua errentan emateko edo salgai. Berritua. ☎677 089046.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**ELIZONDO.** Pisu edo apartamentua errentan hartuko nuke. ☎659 308384.

**ETXEBIZITZAK**

konpartitzeko

**BERA.** Neska batek pisukidea behar du. Arduratsua eta erretzailea ez dena. Pisua Bera kanpoaldean. ☎662 585965.

**GARAJEAK/LOKALAK**

salgai

**LESAKA.** Eltzetako plazan 58 m<sup>2</sup>ko lokala sal-

gai, lehengo bodega edo upategia. 45.000 euro. ☎948 452083.

**DONEZTEBE.** Lokalak salgai. 3 lokal Zazpigaruru tze auzoan. 45 m<sup>2</sup> eta 42 m<sup>2</sup>. Lokal bat Leitزارako bidean, 130 m<sup>2</sup>. Premiazkoa saltzea. Prezio ona. ☎948456010(Fernando).

**GARAJEAK/LOKALAK**

errentan hartzeko

**LESAKA.** 50 m<sup>2</sup> inguruko lokal bat errentan hartzeko. ☎948 637050 (deitu bulego orduetan).

**DONEZTEBE.** Almazena gisa erabiltzeko lokal edo bajera ttiki baten bila Doneztebe inguruan. 50-70 m<sup>2</sup> inguru. ☎671 780503.

**MALERREKA.** Biltegi bezala erabiltzeko lokal edo bajera ttikiaren bila gabiltza. Sunbilla, Ituren, Zubietza, Elgorriaga inguruan. 40-50 m<sup>2</sup> tartean. Ez du beheko solairua izan be-

harririk. Lehenbailehen sarzkeko. ☎671 780503.

**LANA**

eskaintzak

**IBARDIN.** Beola Etxean arropa-dendan frantsesa dakien pertsona bat behar da. ☎948630709/beolaetxea@gmail.com.

**LANA**

eskariak

**ELIZONDO.** Asteko lan egunetan, goizetan orduka lan eginen luke emakumezko batek. ☎608 371643.

**Ikasle** bat arratsalde edo asteburuetan lanean ariko litzateke eskualdean. ☎634 087451.

**ELIZONDO ETA INGU-RUAN** mutil gaztea laneako prest: zamalanak egiteko, ostalaritza, lorezaintza, supermerkatuetan... ☎677 099329.

36 urteko **emakumea**, euskalduna, etxeko lanak egiteko edota gaixo edo menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest. Gaez ere bai. Arduratsua, langilea, alai eta pazientzia haundikoa. Lana ongi eginen dut. ☎627 967308.

**Gizonezkoa** prest dago eskualde osoan pertsona helduak zaintzeko (interno bezala), abeltzain izateko, mendiko lanak egiteko... ☎631 173893.

**Emakume bat** internabezala lanean ariko litzateke haur edo pertsona helduekin. ☎618 686388.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(urtarrilaren 31tik otsailaren 7ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 51 € (=)

**Zerri gizena**  
1,227 € kilo. (+0,016)

**Zerramak:**  
0,680€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,37

**1.koa** 4,11  
**2.koa** 3,96

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,43  
**1.koa** 4,15  
**2.koa** 4,01

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 120,00  
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**

urruxak 140,00  
idixkoak 150,00

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,00/3,10  
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,80/6,40  
8-10 kilokoak: 4,50/5,20



**MOTORRAK**

**saldu**

**Opel Vectra** DTI 16V 2.0 100 CV salgai, 2001. urtekoa, 220.000 KMrekin. Egoera onean, ez du inoiz arazorik eman. 1.600 euro. ☎620 735089.

**Opel Antara** autoa salgai. Duela urte bat erosia. ☎610 893804.

**Audi A3** Sportback S-line quattro salgai, 113.000 km eta 140 zaldi txipeatua (172) bluetooth mugikor-arentzat. 2006koa. WhatsApp erantzuten ditut. ☎661 700379.



**ANIMALIAK**

**oparitzeko**

**ETXALAR.** urte eta erdiko artzain zakur meua oparitzeko. ☎697 387920.

**ANIMALIAK**

**salerosketak**

**4 urteko ahari mutur beltza** salgai. ☎606 960237.

**DENETARIK**

**galdu-aurkituak**

**BERA.** Herriko Etxe inguruan giltza sorta bat aurkitu dute, haien artean hiru giltza Volvo markako ibilgailuarenak. Giltzatakuan Palanger jartzan du eta T. Belako SL enpresako iragarkia ere bai. ☎687 736971/ 647 759138 (Berako udaltzainak).

**DENETARIK**

**salerosketak**

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

**IRUN.** Taxi lizentzia salgai, jubilazioa dela-eta. ☎630 123959.

**Gasezko galdara** salgai, 3 urte ingurukoa. ☎675 714360.

**ORONOZ.** Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



**Tren moduko ohea** salgai. 3 ohe eta goiko ohearen azpian armairu bat. 3 metro luze eta 0,90 cm zabal. ☎650 478375.



Argazkiko **paskualiaren kama** (remolkea) salgai.



Egurrezkoa, egoera onean. 550 euro. Deitu ikusteko ☎948 510533.



Flauta edo **zeharkako xirula** berria salgai. ☎675 714360.



Haritzeko **solibo** eta ha-beak (**bigak**) salgai. ☎639 608034.

**Tatami** berri-berria salgai. 250x200ekoa. Oso prezio onean. ☎610 213326.

**ttipi txartela**

ttipi txartela harpide-tza hain merkeagoa da

ttipi txartela eginez gero 2 liburua opari

ttipi-ttapa aldizkaria doan 39 denetan deskontuak hamabostero 2024 eta 2025erako da eta informazioa eskatu

Koskontako bidea, 7 - 1  
31770 LESAKA | 948 635 458  
www.ttipi.net | info@ttipi.net

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Zorionak eta urte askoan Sunbillako LOREA ARRUA-BARRENA DESTRI-BATSI aitaxo, amaxo eta Uxoaren partetik. 5 urte bete dituzu printzesa! Muxuak.



Zorionak osaba! Narbarteko ASIER ARRETXEKA BIDE-GAINEK urteak bete ditu otsailaren 12an. Zorionak familia osoaren eta berexiki Aieko ilobaren partetik.



Zorionak INAR zure lehen urtebetetzean eta baita osaba GORKARI ere mordoxka bat gehiago betetzeagatik. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Zorionak Berako INAR RETEGI RICORI. Otsailaren 16an etxeko tikiak lehenengo urtea bete du. Muxu handi bat zure familia guztiaren partetik.



OIHAN TELLETXEKA SEIN igantziarrak 5 urte beteko ditu otsailaren 23an. Aunitz urtez etxeko partetik.



Sunbillako EKIÑE BERTIZ ARIZTEGIK 5 urte beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak Sunbillako eta Etxalarko familiaren partetik. Berendu goxoa prestatu printzesa!



Sunbillako EKIÑE BERTIZ ARIZTEGIK 5 urte beteko ditu otsailaren 23an. Muxu handi bat aita, ama eta berexiki Jone ahizparen partetik.



Sunbillako EKIÑE BERTIZ ARIZTEGIK 5 urte beteko ditu otsailaren 23an. Muxu handi bat aita, ama eta berexiki Jone ahizparen partetik.

otsaileko zk. saritua  
6.868

Bi lagunendako bazkaria

Saritua hilaren 28a baino lehen deitu behar du Bortzietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera


948 63 52 54



IRATXE LOIARTE PETRIKORENA igantziarrak otsailaren 19an 10 urte beteko ditu. Zorionak!



Zorionak! Otsailaren 27an Legasako NAIARA MENDIBURU ANDRESENAK 7 urte beteko ditu. Mila muxu Legasako familiaren partetik, berexiki June eta Araiaren partetik.



OIHAN LUJANBIO SANCHEZEK 8 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



OIHAN LUJANBIO SANCHEZEK 8 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

↑

hemen agertu nahi duzu?

egin zure errozketa [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

argazki soila

4

EURO

aldizkarian · interneten

argazki bikoitza

8

EURO

Serapio Mugika, 15  
IRUN • 943 618 033  
mirentxu70@yahoo.es

JAUNARTZERAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

JAUNARTZERAKO JANTZIAK  
OSAGARRIAK  
OINETAKOAK  
NESKENTZAKO

NESKEN SOINEKOKAK

150€tik

MUTILEN JANTZIAK

125€tik

KONTSULTATU ESKAINTZEN DAUGUN GUZTIA. HARRITUKO ZARA!

# Akats zuzenketa

# OHARRA



## ADI BAZTAN, BERTIZARANA, BORTZIRIAK ETA MALERREKA

Etkez-etxe banatu diren 2014ko egutegietan ALDERANTZIZ MARKATUAK DAUDE ILGORIEN ILGORA eta ILBEHERA.

Beraz, egutegian ilgora paratzen duenean ilbehera da, eta ilbeheran markatzen duenean, ilgora.

Hemen daude ongi markatuak ilgariaren ilgora eta ilbehera faseak. 2014 / ILGORA eta ILBEHERA faseak.

URTARRILA		OTSAILA		MARTXOA		APIRILA		MAIATZA		EKAIMA	
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
1	2	3	4	5	1	2	1	2	3	4	1
6	7	8	9	10	11	12	7	8	9	10	11
13	14	15	16	17	18	19	14	15	16	17	18
20	21	22	23	24	25	26	21	22	23	24	25
27	28	29	30	31	24	25	28	29	30	31	28
					26	27	28	29	30	31	29
											30

UZTAILA		ABUZTUA		IRAILA		URRIA		AZAROA		ABENDUA	
A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5
7	8	9	10	11	12	13	6	7	8	9	10
14	15	16	17	18	19	20	13	14	15	16	17
21	22	23	24	25	26	27	20	21	22	23	24
28	29	30			25	26	27	28	29	30	25
					29	30	31				26
											27
											28
											29
											30
											31



**ILBEHERA:** Lurretik begiraturik ilgariak egiten duen orbita, egun batetik bestera beherantz doa. Egun luzean landareen sustraietan akribitate gehiago dago. Garai egokia da: sustraiak eta errebolak biltzeko, lehorta behar ditugun landareak jasotzeko, kimakietak egiteko, landareak landatzeko eta larra ongarriratu eta prestatzeko.

**ILBEHERAN:** Landata, kimatu-mortu, larra landa, goratzi...



**ILGORA:** Lurretik begiraturik ilgariak egiten duen orbita, egun batetik bestera gorantz doa. Egun luzean lar azpitik baino akribitate gehiago dago gainean. Izardi gehiago dago landaretan eta momentu egokia da tuerletak egiteko eta urta biltzeko.

**ILGORAN:** Erelin, tuerlata, belarra ebaki, fruta bildu...

# BORTZIRIETAN, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAAA!!!



## AURREMATRIKULAZIO EPEA

**Haur eta Lehen Hezkuntza: otsailaren 20tik 26ra**  
**DBH, Batxilergo eta LH: datak zehaztear daude**

Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz  
Doan | Integratzailea | Jantoki eta garraio zerbitzuarekin  
Teknologi berriez baliatuta | Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan  
DBH, Batxilergoak eta LH. bertako institutuan

